



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**

**2009ko martxoaren 7ko**  
**Biltzar nagusia**

*Assemblée générale*  
*du 7 mars 2009*



# Ekintzen bilduma

## Bilan d'activités 2008



**Euskal kultur erakundea - Institut culturel basque**  
**Lota Jauregia - Château Lota - BP 6 - 64480 Uztaritze - Ustaritz**  
**Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84**

[www.eke.org](http://www.eke.org)





# AURKIBIDEA

- Euskal kultur erakundeko barne antolaketa..... 3
- Euskal kultur erakundeko ekintzak : ..... 5 - 45

## **Euskal kultur erakundeko barne-antolaketa**

\* - \* - \* - \* - \*

### ***BILTZAR NAGUSIA :***

239 kideek osatzen dute : 93 kultur elkarte eta 146 herri (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

### **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

#### ***Euskal elkarten ordezkariak :***

Xabi IBARBOURE, Frantxua COUSTEAU, Paxkal INDO,  
Patrick LARRALDE, Beñat CHASSEVENT, Ximun CARRERE,  
Jokin CALDUMBIDE (ondotik Peio SOULE), Michel ORONOS.

#### ***Legezko ordezkariak :***

##### Estatua :

Marc CABANE, ondotik Philippe REY (prefeta),  
Eric MORVAN (suprefeta),  
François BROUAT (ondotik Claude JEAN),  
Jean-François SIBERS (DRAC Aquitaine).

##### Akitania lurraldeko kontseilua :

Jean-Joseph LISSAR (Lurraldeko kontseilaria),  
François MAITIA (Lurraldeko kontseilaria),

##### Pyrénées-Atlantiques-etako Kontseilu Orokorra :

Max BRISSON (Biarritzeko kontseilari orokorra).  
Bernard GIMENEZ (Angeluko kontseilari orokorra),  
ondotik Kotte ECENARRO (Hendaiako kontseilari orokorra)

##### Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikata :

Ramuntxo CAMBLONG (Angeluko hautetsia),  
ondotik Paco ARIZMENDI (Donibane-Garaziko hautetsia)

Philippe GOYETCHE (Larresoroko hautetsia),  
ondotik Jean-René ETCHEGARAY (Baionako lehen axuanta).

#### ***Pertsonalitate kalifikatuak :***

Jean-Louis DAVANT, Mikel ERRAMOUSPE, Xabier ITZAINA,  
José-Maria MUÑO-A-GANUZA, ondotik Iñaki GOMEZ

#### ***Beti gomituak :***

Erramun BACHOC (hizkuntzalaria),

Jean-Claude IRIART,  
ondotik Extebe EIHERABIDE (Euskararen erakunde publikoaren zuzendaria)

---

#### ***Konduetarako komisarioa :***

Michel FAGOAGA

## **BULEGOA :**

Lehendakaria :..... Mikel ERRAMOUSPE

Lehendakariordea : ..... François MAITIA

Diruzaina : ..... Frantxua COUSTEAU

Idazkaria : ..... Beñat CHASSEVENT

## **TALDE PROFESIONALA :**

**Zuzendaria** : ..... Pantxo ETCHEGOIN

**Zuzendariordea** : ..... Daniel LANDART

### **Sail arduradunak :**

Etnologia - ondarea : ..... Terexa LEKUMBERRI (4,5 egun /astean)

Euskarazko kultur animazioak : ..... Pantxika MAITIA

Kultura bitartekaritza : ..... Jakes LARRE

Ikusgarrigintza : ..... Frank SUAREZ

**Kontabilitatea / Idazkaritza** : ..... Maddalen ERROTABEHHERE-DUPUY  
(4 egun / astean)

**Idazkaritza / Euskarazko itzulpenak** : ..... Frederik BERRUET

### **Proiektu berezientzat :**

► « Euskal munduak » erakusketa..... Julie BERCETCHE  
(2008ko urtarrilaren 1etik otsailaren 29ra)

► **Artxibo soinudunen baloratzea** : Maite DELIART  
(2008ko irailaren 1etik abendoaren 31ra)

► « Baxe-Nafarroako herriei buruzko datu bilketa » Bixente LOHIAGUE  
(2008ko irailaren 1etik abendoaren 31ra)

## 1.1/ Euskal Herriko ahozko ondarearen bilketa, zainketa eta baloratzea

Donapaleuko eta Donibane Garaziko kantonamenduetan hogeit hamar inkesta egin ditugu 2008an :

Donapaleuko kantonamenduan : Michel Mendibil (Gabadi), Noël eta Kattalin Lacoste (Ilharre), Jeanne Alchourroun, Georgette Errecart eta Jean-Pierre Lapoube (Arberatze), Marie-Jeanne Auchoberry eta Jeanne Doxaran (Donapaleu), Jeanne Arcondéguy (Lohitzüne-Oihergi), Dominique Etchegaray (Domintxine), Gérard Sabarots (Oragarre), Jean-Marie Larroque (Arboti-Zohota), eta Joana Davant (Urrüstoi-Larrabile).

Donibane Garaziko kantonamenduan : Guillaume Irigaray (Ahatsa), Michel Curutchet eta Michel Tihista (Ezterenzubi), Beñat Urruty (Mendibe), Jean-Baptiste Barberena (Zaro), Flontxa Harispe (Uharte-Garazi) eta Beñardo Indart (Uharte Garazi).

Baigorriko kantonamenduan : Marie-Jeanne Minaberry (sortzez Bankarra).

Oharra : Helburu nagusia zen Amikuzeko bilketa 2008an bururatzea. Baina beste proposamen bat sartu da artean. Garaziko Sindikatak eta Aezkoako Juntak (Leader proiektuaren barnean) Baxenabarreko bilketaren partaideak diren Euskal kultur erakundeari, Euskokultur fondazioari eta Aldudarrak bideori galdegin diete filma bat egin zezaten memoria kolektiboaren biltzeko Garazi eta Aezkoa haranetako mugazgaineko harremanez. Hara zergatik 6 bideo grabatu diren Donibane Garaziko kantonamenduan. Baigorriko kantonamenduan egin da ere grabaketa bat beste proiektu berezi batentzat. Beraz 2009an bururatuko da Amikuzeko bilketa eta Iholdiko kantonamenduan segituko.

### Montaketa eta indexazioa

Aldudarrak Bideoko bulegoetan eginak izan dira, elkarrizketa bakoitzarentzat (zatiketa sekuentziak eta sekuentzia bakoitzaren ezagutza : kodigo, izenburu eta bilduma batekin).

### Elkarrizketa bakoitzaren informazioen tratamendua artxiboetarako

#### Departamenduko artxiboentzat :

Sekuentzietan lotu emaitzak (kodigoa, izenburua eta bilduma) baita ere elkarrizketei lotu emaitza orokorrak (inkestalariak bete fitxa tekniko batean bilduak) Arkhéia logizialaren bidez tratatuak dira, departamenduko artxibo soinu-dunetan sartzeko gisan.

#### Euskokultur fondazioarentzat :

Mementukoz, gorago deskribitu emaitzak (sekuentzietan lotuak baita ere elkarrizketari orokorki) Euskokultur Fondazioari igorriak zaizkio, Excelen bidez tratatu ondoan. Epe laburrean, helburua da zuzenki sartuak izan daitezen Euskokultur fondazioaren datu basean.

## Balorapen pedagogikoa

"Biharko etnologoak" proiektua 2008an abiarazi dugu Donapaleuko lehen mailako eskoletan eta kolegio pribatuan, haurrek beren baitarik ikus eta ikas dezaten zer den bilketa lan baten egitea. Gaia : besta. Egitasmo hau 2009ko ekainean bururatuko.

### **Baxenabarreko herrien aurkezpena**

Nafarroako Unibertsitate Publikoak galdegin dio Euskal kultur erakundeari obralari izatea Baxenabarreko herrien aurkezpena egiteko. Sei hilabete iraun duen lan hori Bixente Lohiaguek egin du.

Baxenabarren 75 herri kondatzen ditugu gaur, lehenago 90 parrokia bazirelarik (batzutan bi herri batu baitira, hala nola Arruta-Sarrikota).

Egina izan den lanean, zati bat idatziz ezarria da, gutti gora behera 675 orrialde. Zati horretan sartu dira ere dokumentu historikoak eta plano zenbait (herriak, baina ere eraikin suntsituak, etabar), orotara 120 bat orrialde. Aurkezpen idatzi horretan aurkitzen dira 200 bat libururen erreferentzia bibliografikoak eta monografikoak. Xehetasun horiek guziak biltzeko, Bixente Lohiaguek 30 bat liburu, artikulua eta dokumentu (argitaratuak edo ez) irakurri ditu, mota guzietakoak (arkeologikoak, arkitekturakoak, historikoak, geologikoak, etabar).

Ikerketa hori posible izan da 100 bat presuna adituek laguntza eman baitiote (herriko kontseilari, zientifiko, edo herrian berean bizi diren jendeak, ahozko ohidura et herriko bizia ontsa ezagutzen dutenak).

Lan horretan kausitzen dira ere 4500 argazki (herriko etxe, eliza, karrika, iturri) Bixente Lohiaguek egin dituenak, baita ere eman dizkietenak (familiako argazki zahar, lehenagoko irudi, tresna zahar), beste 2900 argazki.

Ekai horiekin guziekin argazki eta musika montaia zenbait egin ditu (10 bat orotara). Lan hori ahal bezain gaurkoa izan dadin, 350 Internet lotura gunere agertzen dira.

### **MuCEM – EX MNATP eko artxibo soinudunak :**

2008ko abuztutik abendura, fondo hunen tratamendu osoa (entzun, deskribatu eta artxibiztoki tratatu) eta informatzailen komunikatzeko baimenaren ihardestea egina izan da. Orotara, 43 ordu 1 048 soinutan banatuak, 1947tik 1984ra egin inkesta ethnomusikologoen emaitza.

Artxibo soinudun hauek entzungai izanen dira departamenduko artxibo zerbitzuan, Baionako artxibo poloan bai eta Irisarriko ondare zentroan.

## **Xiberoko kantueri buruzko artxiboen numerizazioa**

*Association Sü Azia*

Sü Azia elkarteak, Marie Hirigoyen etnomusikologian doktoregai denari esker, lan hauen zati bat egin du :

- elkarteak dauzkan soinu fondoaren disko gogorrean ezartzea (400 orenen grabaketa);
- fondoaren indexazio lana
- fondoaren artxibatzea (dokumentuen datu basean sartzea).

2008an egina izan den lana 2009an segituko da, ekintza honen partaide nagusiak direla : Euskal kultur erakundea, Kontseilu Orokorra eta Xiberuko Herri elkargoa.

## **Herri memoriaren eskuratzea**

### **1) Piarres Larzabal**

Piarres Larzabal antzerki idazlearen heriotzearen hogeigarren urteburu kari, haren omenez urte guzian ekitaldiak antolatuak izan dira. Lehena eta azkena Azkainen, bere sor-herrian, urtarrilaren 26an eta azaroaren 22an. Haren memoria aipatua izan da Saran Euskal Herriko Idazleen biltzarra egunean), bi mintzaldi egin ditu Daniel Landartek, bata Biarritzen (Bi harriz lau xori kulturaldian), bestea Donostian (Koldo-Mitxelena kulturunean). Piarres Larzabal kolejioko ikasleek ikusgarri berri bat asmatu dute "Iturritik itsasora" izenburuarekin. Ortzaitzeko ikastolako buraso batzuek Larzabalen antzerki zatiak antzestu dituzte eta haren bi antzerki berriz emanak izan dira : "Ibañeta" eta "Hila espos".

### **2) Joanes Arrossagaray**

Joanes Arrossagaray (1949-1998) bertsularia zen. Aintzilen sortua eta bizi izana. Herriko kontseiluak omenaldi bat eskaini nahi izan dio eta Euskal Kultur Erakundea ere hastetik juntatu zaio egun eder baten antolatzeko, Bertsularien lagunak elkartarekin batera. Ekainaren 6an iragan da ospakizuna, mezarekin hasirik eta bertsu saio batekin bururatuz, bitartean Urbistondo aita-semeez zizelkatu oroitarria agerian ezarria zelarik.

### **3) Pierre Dibarrat**

Bertsularien Lagunak elkarteak proposaturik eta Euskal kultur erakundeak sostengaturik, Jatsuko auzapezak onartu du, bost lorietan, herriko seme bat, Pierre Dibarrat « Bettiri koblaria » (1838-1919) ohoratua izan zedin. Haren izena eman diote eskola publiko elebidunari, urriaren 25ean egin zeremonian.



## **Euskal antzerkia : artxiboen numerisazioa**

Oiartzungo herriak onartu baitu Euskal Herriko antzerki artxibategi osatuena izatea, Eugenio Arozena bilketa lanetan ari izan da. Eugenio Arozena, Eusko Jaurlaritzako Antzerki Departamenduko zuzendari ohia da eta antzerki mundua ondi ezagutzen du. Bildu dituen dokumentu guztiak numerisatu ditu.

Baxenabarreko eta Lapurdiko antzerkiari dagokionez, Daniel Landartek laguntza ederra ekarri dio. Bere artxiboak baita Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra (EATB) elkartekoak prestatu dizkio eta iparraldeko idazleei, zuzendariei eta jokolariei gauza beraren egitea galdegin die. Denek onartu dute. Eskertzekoak dira : Antton Luku, Pantzo Hirigaray, Mattin Irigoyen, Guillaume Irigoyen, Eñaut Larralde, Txomin Hégu, Arño Uhart, Jean-Pierre Challet, Angel Arregui, etabar, ekimen horretan parte hartu baitute. Beren lekukotasuna ekarri dutenak izan dira : Jean-Louis Davant, Jean-Michel Bedaxagar, Pantxo Etchegoin, besteak beste.

Numerisazio lana segitua izanen da, hala nola Guillaume et Mattin Irigoyen idazleen obrentzat, etabar.

## **1.2 Euskal kulturaren heziketa**

### **Hezkuntza artistikoa eta kulturala eskola munduan**

Euskal kultur erakundea, Inspezio Akademikoaren eta DRACaren aldetik baliabide iturri gisa onartua da. Hezkuntza artistikoa eta formakuntza orokorki euskaraz eraman ditzake eskola orenen barnean eta eskola orenez kanpo.

Kultura heziketaren garapenerako departamenduko Planaren barnean (partaideak direla : Errektoragoa, Inspezio akademikoa, DRACa, Departamenduko gazteria eta kirola zuzendaritza, Kontseilu Orokorra, Akitaniako Kontseilua eta Herriko Etxe zenbait), Euskal kultur erakundea 4 egitasmoren bitartekaria izan da :

### ***Lehen mailako eskoletak :***

- **Santa-Grazi** – Pastoralak : nolako zirkoa ? – « Lau sasua » - 14 ikasle – Irakasle koodinatzailea : Karine Menginou. Artista parte hartzaileak : Pierre Vissler, Ttittika Récal et Gonzalp Etxebarria.

- **Idauze-Mendi** – Kondaira bilduma baten idaztea eta irudiztatzea - 14 ikasle – Irakasle koodinatzailea : Maylis Fordin - Artista parte hartzaileak : Gonzalo Etxebarria.

- **Mendikota** - Kondaira bilduma baten idaztea eta irudiztatzea - 24 ikasle – Irakasle koodinatzailea : Maylis Fordin - Artista parte hartzaileak : Gonzalo Etxebarria.

### ***Kolegioa :***

Atharratze, Pierre-Jauréguy – « Dantza piko bat Montebideoara » - 16 ikasle - Irakasle koodinatzailea : Anne-Marie Etcheverry - Artista parte hartzailea : Nicole Lougarot.

## **Lizeoa :**

- **Maule**, Lycée du Pays de Soule – Euskameriketako artzain – (Atzerriratzea aipatzen duen pastoral baten moldaketa) – 20 ikasle - Irakasle koodinatzailea : Anne-Marie Etcheverry - Artista parte hartzailea : Nicole Lougarot.

- **Baiona**, Bernat Etxepare – Bertsoz bertso – 72 ikasle - Irakasle koodinatzailea : Guillermo Etxebarria - Artista parte hartzailea : Carlos Aizpurua.

- **Baiona**, Bernat Etxepare – Olerkiz olerki – 64 ikasle – Koodinatzailea : Maite Bergara - Artista parte hartzailea : Auxtin Zamora.

## **Jazz'in college : Itoiz taldearen kantuak**

Musique en milieu rural elkarte

Denise Olhagaray musika irakasleak bultzaturik, hamar kolejoetako musika irakasleek onartu dute egitasmo honetan parte hartzea beren ikasleekin. Ekitza hau « Jazz'in college » departamentuko ekintzen barnean sartzen da. Parte hartu duten kolejo hauetan zortzi publikoak dira, bi pribatuak. Hona haien kokapena : Hendaia, Donibane Lohizune (2), Biarritz, Angelu, Tarnose, Kanbo, Donibane Garazi, Baigorri eta Hazparne.

Musiken moldaketa, bi bozetan ezartzea eta KD « Playback » baten egitea, lan hori guziaz Jose San Miguel konposatzailearen eta kolejioko musika irakaslearen gain zen. Lehen emanaldia : ekainaren 6an Donibane Garazin, bigarrena : ekainaren 17an Biarritzen (Gare du Midi).

## **« Idazleak eskoletan »**

Euskal Idazleen Elkarte

Euskal Idazleen Elkartearen kondu, Itziar Madinak kudeatu du iparraldean « Idazleak eskoletan » proiektua. Hona nor non ibili den :

Marie-Kita Tambourin : Donibane Lohizuneko Dona Maria kolejoan ; Karlos Aizpurua : Sarako San Josepe eskolan ; Eneko Bidegain : Ziburuko Piarres Larzabal kolejoan ; Xipri Arbelbide : Baionako Bernat-Etxepare lizeoan ; Jose Inazio Basterretxea : Baionako Bernat-Etxepare lizeoan ; Hasier etxeberria : Baionako Bernat-Etxepare lizeoan ; Antton Kazabon : Baionako Oihana ikastola ; Juan Kruz Igerabide : Baionako Oihana ikastola ; Daniel Landart : Donibane Lohizuneko Dona Maria kolejoan.

## **Eskolaz kanpoko euskarazko animazioak**

Aurten, Hendaia herria bakarra izan da 6-11 urte arteko gazteei euskarazko tailerrak proposatu dituen CETL hitzarmenaren kariatara. Euskal kultur erakundeak bere kultura bitartekaritza lana egin du erakasle bakoitza segituz (antzerkigintza, kantua, adierazpide grafikoa, irratigintza, ingurumena).

75 hurrek tailer desberdin horietan parte hartu dute asteazken eta larunbatetan.

## **Piarres Larzabal antzerkigilea omendua**

Euskal kultur erakundeak eta Azkaingo Herriak Piarres Larzabal antzerki idazle zena omendu dute, bi ekitaldi apailatuz. Urtarrilaren 26an estreinatua izan da apez-etxe zaharberria eta karia hortara parropiako sala "Piarres Larzabal" bataiatu dute. Auzapezaren ongi etorriaren ondotik, Jean-Pierre Ibarboure, kultura axuanta eta Daniel Landart EKEko zuzendariordea eta antzerki gizona mintzatu dira. Beste bilkura bat iragan da azaroaren 22an : Ixabel Etxeberriaren mintzaldia, antzerki zatien irakurketa. Irakurleak : Maite Deliat, Graxi Solorzano, Pantxoia Etchegoin eta Daniel Landart. Argazki eta dokumentu numerisatuen bidez Eugenio Arozenak montaketa bat erakutsi du Larzabalen antzerki obra desberdinak erakutsiz. Arratsean, kontzertua elizan : Xiberuko kantua eta kapela (Jean Bordaxar, Robert Larrandaburu, Jean-Pierre Luro eta Jean-Noël Pinque). Orain arte bilduak diren dokumentuatarik baliatuz, Euskal kultur erakundeak zerbait berri egin nahi luke bere sarean ezartzeko : [ww.eke.org](http://ww.eke.org).

## **Hitzaditza : diktaketa euskaraz**

Diktaketa hirugarren aldikoz antolatu Euskal kultur erakundeak, AEKrekin eta euskaltzaindiarekin partaidetzan. Lauetan hogeita hamar bat presunek parte hartu dute eta hiru maila baziren :

- 1-** Euskara ongi menperatzen duten jende helduentzat : Koldo Ameytoy jaunak espresuki idatzi testua. Lehen saria : Elorri Haritschelhar.
- 2** – Hamahiru hamalau urtekoentzat : Amaia Hennebutte anderearen testua. – Lehen saria : Joana etchegoin. Hamabost hamasei urtekoentzat : idazle beraren testua. Lehen saria : Argitxu Etxeberri.
- 3** – Euskara ikasten bigarren urtean direnentzat : Piarres Larzabal zenaren testu bat. Lehen saria : Dominique Hastoy.

## **Musika eta kantu taillerak**

Iparralai elkarte

Dantza eta kantu taillerak Donibane-Garazin Baxenabarreko 17 herrietako 50 bat haurrentzat (6 et 11 urte artekoak). Euskarazko erakaskuntza. Erakasleak : Denise Olhagaray, Bernadette Urrutia eta Amaia Lerissa.

## **Arte plastikoak**

Zirrimarra elkarte

Arte tailerrak haurrentzat (euskaraz eta frantsesez) Garazi – Baigorriko 30 haurrentzat. Obrak erakutsiak dira Donibane Garaziko Herriko Etxean, ekainaren 21etik 30era.

## **Kultur animazioak Xiberuan**

Ikas pedagogia zerbitzua elkarte

Lau animazio Zuberoako hiru sareetako euskal ikasleendako :

- Altzürükü herriaren ezagutza (pista jokoak...), 3 eta 11 urte artekoentzat, 100 bat hurren elgarretaratzea,
- 3. ziklokoentzat : euskal literatura, eleberri polizial bat eskolan landuz, marrazkiak egin etabar...
- Xiru festibala denboran (migrazioan oinarritu egintzak),
- Eguberri kari. 200 bat haur Sohütako, Barkoxeko, Mauleko, Atarratzeko, Urdiñarbeko eta Idauze Mendiko eskoletatik, bi saioetan ,Maulen.

## **Ohiko dantza**

Iparaldeko dantzarien biltzarra elkarte

IDBk klaseak ematen ditu astero ohiko dantza taldeei eta lehen mailako eskola desberdinei.

Irakasleak : Céline Duperou eta Jon Iruretagoyena. Marie Errecart arduratu da musika klaseetaz.

IDB-ko langileek mediateka bate osatzen dute (bideo, diska, liburuekin), euskal dantza taldeen esku izanen dena.

## **Gida arkitekurala eta metodologikoa**

Bizpahiru urte hauetan Euskal kultur erakundeak eta CAUEk Euskal Herriko etxebizitzaz eraman gogoeten ondotik, CAUE ari da gida arkitekural eta metodologiko baten obratzen eraikuntzak egin nahi dituztenentzat. Gida horrekin batera liburuxka elebidun bat agertuko da Euskal Herriarentzat bereziki izanen dena. Euskal kultur erakundeak parte hartu du 2007an eta 2008an gida horrek nolakoa izan behar duen gogoetatzen. 2009ko udazkenean plazaratu behar luke.

## **JM Barandiaran antropologoaren « Bosquejo Etnografico de Sara »**

Gaztelera zen egin zen ikerketa etnologiko obra aipagarri honen itzulpenek segitzen dute. 2008an frantsesezko itzulpena bururatu izan da. Euskarazko itzulpena : 2009an.

### 2.1/ [www.eke.org](http://www.eke.org) euskal kulturaren ataria

Euskal kulturaren atariaren lehen orrialdea egun guziz eguneratua izan da Iparraldeko euskal kulturaren bizitasunaren miraila izateko gisan (Agenda eta Albisteak sailak). Eguneroko eguneratze lan horrez gain 2008an gai berezi batzuk landu ditugu ere :

- **Blog bat Piarres Larzabalen heriotzaren 20garren urtemuga kari**  
[www.larzabal.eke.org](http://www.larzabal.eke.org) blogak Piarres Larzabal (1915-1988) idazlearen bizia aipatzen du, baita bere obra ere. Antzerki batzuek bereziki azpimarratzen ditu. Bideoak ere ikusten ahal dira. Ezagutu duten pertsonalitate batzuek ere pertsonai atipiko hori aipatzen dute.
- **Uztaritzeko latsagiaren berritzeari buruzko web-atala**  
Etxarriko AFMR-aren, Tokiko Ordezkaritzaren, Etxegintzako bidaide federazioaren partaidetzarekin eta Uztaritzeko Herriko Etxea Obragintzaz arduratzen zela, Euskal kultur erakundeak gazte batzuk egin Uztaritzeko latsagiaren berritzean parte hartu du.  
Web-atal berezi bat antolatua izan da horren inguruan :  
<http://education.patrimoine.eke.org>
- **Begi Bi argazki erakusketaren bloga**  
Euskal kultur erakundeak blog berezi bat sortu du «Begi bi - Regards croisés » argazki erakusketaren inguruan : <http://begibi.eke.org>
- **Georgiako hotsak bloga**  
Mzetamze georgiar kantarien bira kari Ipar Euskal Herrian blog hori osatua izan da euskal eta georgiar kantarien arteko trukaketa artistikoaren aurkezteko :  
<http://georgia.eke.org>
- **Hitzaditza, euskarazko diktaketa.**  
Sarean trebatzeko aplikazio bat sortua izan da. Izen-emaite gehienak sarearen bidez bildu dira. Emaitzak eta lehiaketako argazkiak atariaren bidez zabaldu dira diktaketaren egun berean. <http://hitzaditza.eke.org>
- **Biltegia: Euskal kultur erakundeko ekintzen multimedia artxibotegia**  
Euskal kultur erakundeak antolatzen dituen ekitaldien edo eramaten dituen lanen berri plazaratzen ditu atal horrek. Media ezberdinak lehenetsiz beti (bideoak, soinuak...): <http://biltegia.eke.org>

#### **www.eke.org - Zonbait datu 2008an:**

- ▶ 83 albiste euskaraz eta frantsesez argitaratuak
- ▶ 493 gertakari kultura agendan sartuak, bi hizkuntzatan
- ▶ 86 albiste labur argitaratuak euskaraz eta frantsesez
- ▶ 184 544 bisita 2008an [www.eke.org](http://www.eke.org) atarian, 553 bisita egunero
- ▶ 5747 bisita [www.batekmila.com](http://www.batekmila.com) gunean
- ▶ 814 harpidedun frantsesezko hedapen-zerrendari
- ▶ 1019 harpidedun euskarazko hedapen-zerrendari

## 2.2/ "Klik" ukipen-pantailak, euskal kulturaren erakusleiho

Euskal kultur erakundeak ekoiztu bi ukipen-pantaila horien helburua toki publiko desberdinetan (mediatekak, turismo bulegoak, azokak...) euskal kulturari buruzko kalitatezko informazioa hedatzea da. Leku gutxi hartzen dutenez, tresna aproposak dira toki mugatuetan ezarri ahal izateko. Beren edukia beharren arabera egoki daiteke bainan lehenetsitako multimedia aplikazioak "Kantuketan" eta "Euskal Herriko Aurpegiak" dira. Lau hizkuntzatan kontsulta daitezke (euskaraz, frantsesez, ingelesez eta gazteleraz).

"Klik" ukipen pantailak lehen aldikotz aurkeztuak izan dira Britainiako Douarnenez-eko Itsas Jaialdian 2008ko uztailean. Ondotik Baionako Euskal museoa eta Frantziako Tolosa hirian.

## 2.3/ SORKUNTZA

### « Orreaga – Roncesvals »

*Or Konpon elkarte*

Or Konpon elkartearen hogeita hamargarren urtebetetzekari. Baionako zezen plazan, uztailaren 26an.

Pier pol Berzaitzek asmatu ikusgarria, 778 gudaldia oinarritzat hartuz.

Taula zuzendaritza : Gaël Rabas – Musika zuzendaritza : Jean-Marie Guezala eta Juana Etchegoin – Koregrafia : Célia Thomas – Jauntziak : Erramun Garcia – Dendari lana : Donibane-Lohizuneko Ramiro Arrue lizeoa – 15 musikari – 60 dantzari (Xiberotik eta Lapurditik) – 20 zaldi – 50 beste partehartzaile.

### Mihimena

*Arrola Baigorriko dantza taldea*

Gaia : euskal ohidurazko dantzaren transmisioa eta mahastigintza lanaren transmisioa. Musika moldaketak : Mañolo Espelet, Paxkal Indo, Patxi Bidart.

80 dantzari – 9 musikari – Kantariak : Kantiruki eta Amaia Riouspeyrous

Zuzendaritza artistikoa : Arrola dantza taldea, Patxi Labordaren laguntzarekin.

Argiak : Marc-André Nicolao – Jauntziak : Karrikiri eta Lagun

Lehen emanaldiak : apirilaren 12an eta 13an Baigorriin.

Hirugarren eta azken emanaldia : Biarritzeko « Gare du Midi » gelan, « Bihar Herri » festibalakari.

### Bodarin

*Anaigazteak konpainia*

Euskal dantza sorkuntza hiru ardatzen inguruan, ikusgarri baten aurkezteko.

- Euskal dantzaren eta modern jazz-aren inguruko lana ihauteriaren eta sabbat-aren bitartez ;
- Euskal dantzaren eta flamenco-aren inguruko lana, ezkontzaren tematikaren bitartez ;

Artearen zerbitzuko dagoen teknikari (soinua, bideoa, makinak) buruzko lana.

Koreografoak : Christian Larralde eta Maïna Corronado. Konpositorea-Moldaketak : Josean San Miguel, Patrick Larralde.

Sorkuntzaren estrenaldia : 2008ko apirilaren 5ean Donibane-Lohizunen, « Euskal kultura argitan » kulturaldiaren kariatara.

## **Musika eta dantza**

### *Pottoka dantzan elkarte*

« Ilargi » sorkuntzarako prestakuntza (taillarak eta animazio desberdinak pottoka eta zaldunekin) :

Maiatzaren 4ean Donamartirin : Eltzarruze eguna,  
Uztailaren 26an, Baionan : « Orreaga », Pier Pol Berzaitz-en ikusgarria,  
Irailaren 20an Donibane Garazin : ondarearen egunak,  
Azaroaren 2an Baionan : Lurrama

## **Pastorale**

### *Xiberuko jauna pastorala elkarte*

« Xiberoko jauna » pastoralaren sorkuntza eta hedapena uztailaren 27an eta agorrilaren 3an Ezpeize Ündüreinen

Idazlea: Jean-Louis Davant

Errejenta: Jean-Fabien Lechardoy

Kantoreen moldazalea: Lüxi Camus-Etxekopar

Lau herrietako jendeen partehartzearekin : Ainharbe, Ezpeize, Sarrikotapea, Urrustoi Larrabile.

## **Antzerkia : «Gernika»**

### *Hebentik kolektiboa*

« Gernika » antzerkiaren euskarazko bertsioaren sorkuntza, Hegoaldean hiru aldiz presentatua izan da : apirilaren 25 eta 26an Beran eta maiatzaren 17an Lesakan. Antzerkilariak : Ramon Albistur, Renate Dregger, Pierre Vissler eta Ane Zabala. Musikaria : Pierre Thibaud. Taula zuzendaritza : Ramon Albistur.

## **Antzerkia : « Juglarea, puta eta eroa », « Tartean », « Aulki hutsa »**

### *Le petit théâtre de pain konpainia*

Le PETIT THEATRE DE PAIN antzerki taldeak denbora berean hiru euskarazko sorkuntza (Dario Fo-ren Juglarea, puta eta eroa, Michel Azama-ren Tartean eta Joseba Sarrionandia-ren Aulki Hutsa) aurkeztu dituzte Baxe-Nafarroan otsailaren 7, 8 eta 9an.

EKE-k eta PTDP-ek lurraldeko hedatzaileak (Garazikus, Haize Berri, Biarritz Culture, Accords, Hebentik, Eihartzea) gomiatu zituzten bakotxaren ahalak biltzeko asmoz proiektua borobiltzeko.

Alde batetik, hiru ikusgarrien ko-ekoizleak Haize Berri, Garazikus eta Euskal kultur erakundea agertu dira.

Bestalde batetik, EKE-k hedapena erresteko emanaldien prezioaren parte bat bere gain hartu du ikusgarri bakotxaren prezioa ez dezala, erosteko momentuan, 400€ baino gehio kostatzen.

Orotara, 27 emanaldi izan dira EKE-ren laguntzari edo sareari esker eta beste 11 PTDP-ren sarearen bitartez, kasik Iparraldean soilik. Emaizta ona hiru kalitate handiko obra horientzat euskal antzerkiaren merkatuari begira.

Aipatzekoa, Euskal Kultur Erakundeak proiektuaren inguruko bloga sortu du.

## **Ipuina : Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart**

*Dariola elkarte*

« *Aneta Bokaleko* » ikusgarriaren sorkuntza. Artistak : Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart. Gaia : Bokaleko Anetaren kondaira, Koldo Amestoy-ek moldatu duena. Testu kantatuen musika : Pantxix Bidart.

Argi jokoak : Marc-André Nicolao

Euskarazko sorkuntza : Heletako « Itsasoa » gelan, apirilaren 18an.

## **Antzerki sorkuntza :**

**« Loreak mendian, ondarkinak lurpean eta bideak gainean »**

*Kitzikazan/k elkarte*

*Idazlea : Mattin Irigoien*

Otsailaren 16an, Ainhize Monjolosen eta 17an, Domintxinen presentatua izanen da. Antzerkia da ikusgarriaren oinarria eta aldiro, bi bertsulari (Maialen Lujanbio, Eztitxu Eizagirre, Andoni Egaña, Uxue Alberdi) gomituak izan dira.

## **Erakusketa :**

### **Baskarad festibala Dijon-en**

Martxoaren 25etik 30era, Dijon-eko Cyclopédies elkarteak Euskal Herria gomitu du "ziapean piperra" emateko. Baskarad festibalaren xedea kultura hori betiko topikoetatik ateratzea da.

EKE proiektuaren partaide eta aholkulari izan da programazioaren osatzeko.

Biziki egitarau aberatsa osatua izan da alor esberdinetan : argazkigintzan bi argazkilariren (Angela Mejias eta Vincent Perraud) lanaz osatu "Begi bi" erakusketa aurkeztua izan da bertan ; dantzan CCN Ballet Biarritz, Ertza konpainia eta Zpeiz Mukaki ; antzerkian Tokia Théâtre, Traboules, Koldo Amestoy ; musikan Mailane, Beñat Achiary, Sylvain Luc, BTT, DJ Makala....

Cyclopédies elkartearen nahia, nortasun azkarreko kulturak argitan ezartzea da. Palestinaren eta tzigano herriaren ondotik, oraingoan, euskal nortasun biziari hitza eman dio Baskarad festibalaren bidez tokiko kulturarekin topatuz ere.

Partaideak : Dijoneko IUP-ko Association des Etudiants en Culture, Education et Formation (ACEF) elkarte - Euskal Kultur Erakundea.

## **Dantza Hirian**

*Atelier elkarte*

Asier Zabaleta, Ertza konpainiako koreografoaren, Bihar Jaio Nintzen sorkuntzarentzat eta hedapenarentzat laguntza.

- 2008ko uztailaren 1, 2 eta 3an, mota guzietako dantzarien audizio taillera Baionako Elkartearen Etxean.
- « Bihar Jaio Nintzen » sorkuntzaren hedapena Baionan irailean,



## **2.4/ Sorkuntza : euskal literatura**

### **Gazte luma**

« Gazte luma » dirulaguntza 2001ean sortu zen, gazteak euskarazko fikzioak idaztera bultzatzeko. « Euskalgintza elkarlanean » fundazioak, Elkar Megadenda liburudendak eta Euskal kultur erakundeak diruztatzen dute. Irabazleak urte bat badu liburuaren idazteko eta hiru idazleren aholkuak ukaiten ditu. 2008an Béatrice Urruspil-en sinopsia hautatua izan da. Liburua 2010ean argitaratuko da Sarako Idazleen Biltzarra kari.

### **«Hiru otso» literatura eta musika sorkuntza Amaia Hennebutte-Maillard-en eskutik ABD elkarte**

Euskarazko hiru CD-liburu ilustraturen apailatzea, gai beraren inguruan : otsoa, haurrei zuzendua.

Lehen CD-liburuak ipuin unibertsal bat jasotzen du : hiru zerrikumeak. Bigarrenak, euskal kondaira herrikoi bat, « Euskal Herriko leienda eta kondaira herrikoiak » liburutik hartua : otsoa, azeria eta ahuntzak. Hirugarrena aldiz, egiazko sorkuntza garaikidea da, otso gosea protagonista duena. CD-liburu batetik bestera ilustrazioen eta musiken estiloak arrunt aldatzen dira, ixtorio eta unibertso bakoitzari egokitzen dira. Gogoratu proiektu honek Euskal kulturaren aldeko herriarteko sindikataren Ekimen Saria eskuratu duela.

### **« Maiatz » aldizkaria**

*Maiatz elkarte*

« Maiatz » aldizkariaren argitalpenerako laguntza : 46. eta 47. aleak  
Idazle zenbait : Lucien Etxezaharreta, Eñaut Etxamendi, Itxaro Borda, Mattin Irigoyen, Emilio Lopez-Adan, Aurelia Arcocha, Antton Luku, Arantxa Hirigoyen, Luixa Guilzu...

### **Liburua : « Hatsaren poesia »**

*Hatsa elkarte*

« Hatsaren poesia » olerki liburuaren plazaratzea eta olerki egunaren antolamendua apirilaren 6an Senperen.

« Maite ditugun olerkiak » sailean, olerkari bat gomiatu eta berarekin ibilaldi poetiko bat egin.

### **Euskarazko liburuak haurrentzat**

*Gatuzain elkarte*

Haurrentzat egin euskarazko « GRIMM-en ipuinak » liburuaren argitalpena. Idazleak : Jacob et Wilhelm GRIMM – Euskarazko itzulpenak : Arantxa Hirigoyen, Luisa Giltsu.



## HEDAPENA

---

### **3.1/ Euskal artisten hedapena bizkorki sostengatu**

#### **Euskal artisten hedapena**

Kalitateko euskal kultura adierazpena iraunkorki sustatzeko, beharrezkoa da beraz sareak azkartzea eta biderkatzea elkarte eta erakunde partaide desberdinekin. Bestalde, harreman bereziak asmatu behar dira Frantzia eta Europa mailan sail hortan berezituak diren hedapen egituretan oinarrituz.

Ekintza konkretu batzuen bidez emaitzak ekarriko dituen epe luzearako dela ikusirik, euskal kulturaren hedapena lehenik tokian berean eta Akitanian azkartu behar da, diren baliabide zentroen bitartez (OARA, adibidez) eta ondotik Frantzian eta Europan, ikusketa lan handi bati esker.

Gainera, mugazgaineko harremanak jarraitu eta azkartu behar dira egiazko trukaketa artistiko eta kultural politika izan dadin, udalen kultura zerbitzu eta euskal kulturaren aldeko elkarteekilako partaidetza batean oinarritua.

Euskal kultur erakundeak lagundu edo/eta programatu dituen euskal artistak :

Arotce Mixel  
Aitzina Eskiula  
Aitzindariak  
Albor Philippe  
Amestoy Koldo  
Amets Arzallus  
Arkotxa Aurelia  
Armspach Marko  
Arrokiaga (Jean Bordaxar taldea)  
Aured Jesus  
Baigorriko txalaparta taldea  
Bakalau (Beñat Elizondo taldea)  
Bedaxagar Jean-Michel  
Borda Christian  
Bost gehio taldea  
Burrunka taldea  
DJ Makala  
Ducan Mixel et Caroline Phillips  
Eiherabide Maialen  
Elaudi  
Errotabehere Maialen  
Errotabehere Xan  
Errotabehere Xan  
Etxekopar Mixel  
Etxezaharreta Lucien  
Hegoas-Maroteaux Ortzi  
Hirigoyen Marie  
Hollemaert Bruno  
Idirin Maite  
Indaburu Kattalin  
Irigoyen Jean Christian  
Irungaray Jokin  
Jojo Bordagarai  
Kantiruki taldea  
Koldo Amestoy  
Kriolinak taldea  
Landa Mariasun  
Larraus Lucien  
Maite Dugulako taldea  
Mary Julie  
Mejias Angela  
Mikel Duvert (Lauburu elkarte)  
Mounole Céline  
My Jok  
Naizena ez naiz taldea (Leinua)  
Niko Etxart  
Oihenart Maddi  
Oldarra  
Ortzi Oiharzabal  
Othaburu Sébastien  
Patxi ta Konpainia  
Perraud Claire  
Philippe Ezkurra  
Pierre Vissler  
Prud'homme Kittof  
Riouspeyrous Amaia  
Robles Naia  
Telleria Pantxika  
Théâtre du rivage  
Txalap'art  
Usabiaga David  
Uztaro  
Xabaltx  
Zamora Auxtin  
Zpeizmukaki

Orotara, 66 bat artistek 100 bat emanaldietan parte hartu dute.

## 3.2/ Euskal kultura baloratu komunikabideetan

### Euskal irrati emankizunak

#### *Euskal Irratiak elkarte*

Euskal irratiak elkarteak lau irrati babesten ditu. Hauek dira « Gure irratia », « Irulegiko irratia », « Xiberoko botza » eta « Antxeta » irratia. Euskal kultur erakundeak diruztatu ditu emankizun hauek : « Gure arbasoak », « Gure bazterrak », « Hinki hanka », « Punttuka » eta « Musikaren arloa ». Urte ondarrean, emankizun berri bat hasi du egunero zabaltzen dena « Jalgi hadi ».

## 3.3/ Euskal Herri barnekaldeko kultura egituren egitasmoak lagundu

### Baxenabarreko herri antzokia

#### *Garazikus elkarte*

#### *Euskal kultur programazioa urte guzian (artista egonaldiak, sorkuntza, hedapena, mota askotako animazioak*

Le Petit théâtre de pain antzerki taldeko hiru emanaldi otsailean (Aulki hutsa, Tartean, Juglaera puta eta eroa), « Arozena » antzerkia otsaialren 24ean, Kilikolo elkarteko « K Barré » ikusgarria martxoaren 28an eta 29an, « Itoiz kantatuz » ekainaren 6an, « Larzabalekin » antzerkia Ortzaizen, ekainaren 13an, Pilota(r)hitzza ikusgarria Aiziritzen ekainaren 14ean, Oñatiko « Ganbara Ttiki »-ren eta Iparralai koru taldearen kontzertua Izpurako elizan ekainaren 28an, Jean-Christian Irigoyen - David Holmes - eta Beñat Achiary-ren kontzertua Gamarten uztailaren 10ean, « Axeri boda » dantza ikusgarria agorrilaren 16an, Maialen Errotabehere-n kontzertua azaroaren 16an, Maritzuli konpainiaren artista egonaldia Baigorriaren azaroaren 16 eta 17an.

### Haize Berri kultur etxea

Euskal kultur programazioa urte guzian (ondarea, literatura irrati bidez, artegintza) :

- Euskal literatura :
  - o Euskarazko liburu irakurketa irratietan (« Hamakaren deia »).  
Irakurleak : Aurelia Arkotxa, Itziar Madina, Antton Harignordoquy, Marikita Tambourin...
- Arte plastikoak : "Udaberriko erakusketa" : Javier Valverderen margoak maiatzaren 3tik 25era. « Udako erakusketa » : « Ibridoa » Zoe Bray, Maia Curutchet, Aitziber Akerreta, Aitor Ruiz de Eguino artistekin ekainaren 20etik agorrilaren 24era.
- Udako mintzaldiak : agorrilaren 5ean : « Artea, ele eta soinu », Nane eta Aitor Ruiz de Eguino-rekin - agorrilaren 12an : « Amaiurgo gaztelu beltza » Aitor Errazkinekin - agorrilaren 19an : « Euro eskualdeak eta lurralde antolaketa » Antton Lafont-ekin, agorrilaren 26an : Xiberoko euskal transmizioari buruz, hizlaria : Jean-Mixel Bedaxagar.
- Antzerkia : « Ibañeta » obraren ekoizpena. Hedapena : Larzabalen bi aldiz, Anhauzen eta Saran.
- Le petit théâtre de pain konpainiaren 3 antzerkien hedapena.

## Hebentik elkarte

« Etxebarre 007 » dvd-aren sorkuntza eta publikoari presentatzea : Etxebarren, Maulen, Bildozen, Lakarrin, Gamarten eta Baionan.

« Henbenko eta hanko » ikusgarria Urdiñarben eta Larraiñen azaroaren 10ean eta 11an.

## Eihartzea elkarte

« Untsutsik bidean » zazpigarren euskal kultur astea Hazparnen, urriaren 4etik 12ra

- Urriaren 3an : « Zapetak lantegietako garaiak Hazparnen » erakusketaren estreina,
- Urriaren 5ean : « Dong ! », Lagunarte konpainiaren ikusgarria,
- Urriaren 7an : « Attention danger travail » filmaren aurkezpena,
- Urriaren 8an : Beñat Cubururen mintzaldia : « Jakitateen emigrazioa »
- Urriaren 9an : « Juglarea, Puta eta Eroa » euskal antzerkia, Le Petit Théâtre de Pain konpainiak presentaturik,
- Urriaren 10ean : Pierre Carles-en filma : « Volem rien foutre al pais »,
- Urriaren 1an : Mintzaldia « Pierre Duhour, hazpandar berrikeraria ». Hizlaria : Janbattitt Dirassar. Aratsean : soinu eta bideo sorkuntza.
- Urriaren 12an : joaldunen ibilaldia karraketan eta bazkaria.

## 3.4/ Proposamen iturria kostaldeko hirientzat

Orain dela urte zenbait hasirik, Euskal kultur erakundeak proposamenak egiten dizkie kostaldeko hiriei Euskal kulturaren ezagutarazteko eta beren programazioetan sartzeko, hala nola kultur asteak, kontzertuak, hitzaldiak antolatuz.

### Baiona : "Xiberua kantuz" ikusgarria Antzokian

© Euskal kultur erakundeak eta Baiona eta Akitania Hego Eszena Nazionalak erabaki dute "Xiberua kantuz" ikusgarriaren ekoiztea. Horretarako, Mixel Etxekopar musikari ezagutuari eta Hebentik elkarteburuari galdetu diote gaur egun kantu eta dantza alorrean zerbait berri eskaintzen duten artista zenbaitekin gertakari bat apaila zezan. Baionako antzokian ari izan direnak : Amaren alabak taldea, Jean-Mixel Bedaxagar, Michel Arotce, Lucien Larros Joa, Mixel Etxekopar, Oier Kore (txaranga). "Ana non" eta Bernard Mancieten "Gernika" ere eman dituzte.

Ikusgarria otsailaren 24ean zen, igande arratsaldean, Baionako Antzokian.

## © Euskal kultur erakundea /Baionako Euskal Erakustokia

Partaidetza desberdinak egin ditu EKE-k Baionako euskal erakustokiarekin :

- Uda guzian, bi erakusketa ezarri ditu museoan : « *Euskal Herriko aurpegiak* » eta « *Kantuketan* » ;
- Ondarearen egunetan, irailean, aurkezpen bat egingo izan da, Baxe Nabarreko ahozko bilketaren inguruan.

### **Donibane Lohizune :**

#### **“Euskal kultura argitan / Culture basque à l’affiche”**

Zortzigarren aldikoz, Donibane Lohizuneko kultura zerbitzuak eta Euskal kultur erakundeak partzuergoan kultur hamabostaldia antolatu dute martxoaren 16tik apirilaren 6a arte. Antzerkiari toki ederra eskainia izan zaio (« Anaiatxo berezia », « Juglarea, puta eta eroa », « Satorrak » obrekin), « Bodarin » dantza ikusgarriaren estreinaldia, Maialen kantari ; bi mintzaldi (batean Jose Mari Iriondok aipatu du Xanpun, bestean Mikel Duvertek Jose Miguel de Barandiaran). Filma bat ere : Nomadak TX. Begiraleak elkarteak antolatu hiru ekitaldi sartzen ziren egitarauan : Donibane Dantzari, Mutxikoak eta Kantuaren Eguna.

### **Hendaia – Abbadiako Jauregia**

#### **« Kaperan a kapela »**

Euskal kultur erakundeak 2004an abiarazirik, “Kaperan a kapeka – Lau sasoi, lau kontzertu” egitaraua Abbadiako jauregian eramana izan da, Hendaia Hiriarekin eta Antoine d’Abbadie Fundazioarekin partaidetzan.

Martxoaren 2 : Dominika Etxart eta Niko Etxart; apirilaren 27an : Le Petit théâtre de Pain ; urriaren 12an : Amaia Riouspeyrous eta Bostgeio taldea ; abenduaren 7an : Kriolinak hirukotea.

### **Biarritz : kultura animazio ezberdinak mediatekan**

Animazioak antolatuak izan dira mediatekan. Aldi oroz, Euskal kultur erakundearen esku da mediazioa eta arartekolaritza artistekin :

- Philippe Oyhamburu dantzaz eta bere biziaz mintzo, Eneko Bidegainek galdezkatuak;
- “Olerkarien udaberria” zikloaren barnean, Itxaro Bordaren sorkuntza;
- “Nomadak TX” filmea eta Igor Otxoa eta Harkaitz Matinez txalapartariekin elkarrizketa;
- Amets Arzallus bertsulariaren eta Ortzi Oiharçabal biolina jotzailearen arteko topaketa;
- Maialen kantari (Philippe Albor eta David Usandizaga);
- Maite Idirin : « Pablo Sarasate, bizia, obra » ;
- Mariasun Landa haur literaturaz mintzo ;
- Claude Labat : Lauburu elkarteak eramaten dituen ikerketen laburpena ;
- Kittf Prud’hommes : « Txontxongiloen paradoxoa ».

2008ko berrikuntza : Euskal kultur erakundeak Biarritzeko hiriarekin daukan partaidetzan, udan, lau mintzaldi antolatua izan dira meditekan.

- « Euskal kantua, bidaia soinudunean barna » (Pantxoa ethegoin).
- « Nolako geroa euskal etxearentzat ? » (Terexa Lekumberri).
- « Pastoral : Euskal Herriko herri antzerkia » (Jean Haritschelhar),
- « Euskara : iragana, oraina eta geroa » (Mari Kita Tambourin).

Bestalde, Euskal Kultur Erakundeak liburu berrien aurkezpena segitu du urtean zehar **Donapaleuko, Hazparneko eta Kanboko mediateketan**, hala nola : « Paroles d'Amatxi » (Gaby Etchebarne) ; « Regards sur la Seconde guerre mondiale » (Michel Esteban) ; « Xuri eta Gorriak » (Xipri Arbelbide) ; « Herria maitez, Eliza maitez » (Joseph Camino) ; « Euskal Herria : Historia kondatzen duten 40 tokiak / Les 40 lieux qui font l'Histoire » (Peio Eetcheverry-Aintchart - Peio Eetcheverry).

**Bidarte : « Euskal kultur bide arteak – Les journées de la culture basque »**

Euskal kultur erakundeak proposaturik, Bidarteko herriak bi egun antolatu ditu :  
Maiatzaren 2an : Mikel Epalzaren mintzaldia itsas munduaz eta "Aupa Etxebeste"  
filmaren proiektzioa; maiatzaren 3an : Bordagarai talde berriaren kontzertua.

### 3.5/ Mugazgaineko harremanak indartu

#### **Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren eta Euskal kultur erakundearen arteko urteaskotarako hitzarmena**

Eusko Jaurlaritzak bere Kultura Departamenduaren bidez sostengatzen ditu mugazgaineko kultura trukaketak. Ekitaldi hauei gehitu behar dira "Batekmila : Euskal munduak" erakusketa egon den hirietan antolatuak izan direnak (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Getxo, Iruñea) eta "Bitartekaritza" kapituluak aurkituko dituzuenak.

#### **Donostia – Koldo-Mitxelena kulturunean**

##### ***"Iparraldea bertan" zikloa***

- Apirilaren 3an : Kattalin Indaburu / Philippe Albor / Amaia Riouspeyrous / Jean-Christian Irigoyen / Marie Hirigoyen ;
- Apirilaren 10ean : Philippe Oyhamburu bere biziaz mintzo (ohorezko gomitatua), Eneko Bidegain elkarrizketatzaile.
- Apirilaren 17an : Kantiruki taldea.
- Apirilaren 24ean : « Tartean » antzerki obra – Le Petit Théâtre de Pain

#### **Gernika**

##### ***« Iparraldea gero ta hurbilago »***

- Martxoaren 22an : Maialen (Philippe Albor eta David Usabiaga musikariek) eta Bidaia bikotea (Mixel Ducau eta Caroline Phillips).
- Martxoaren 29an : « Satorrak » antzerki obra, Maite Dugulako taldearekin.
- Martxoaren 30ean : "Anaiatxo berezia" – txontxongiloak : Agnès Cerlo, Asier Ugarte; musikariak karriz-karrika : Sébastien Othaburu, Paxkal Saint-Esteben, Mintxo Goikoetxea, Christian Borda).

#### **Oiartzun**

- Apirilaren 11an : Xan Errotabehere ipuin kontalari;
- Apirilaren 18an : Xuberoaren aurkezpena (DVD) eta kontzertua a kapela : Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Robert Larrandaburu, Jean-Noël Pinque.
- Apirilaren 19an : « Ufaka zanpaka », Burrunka taldeak emanik.

#### **Urretxu-Zumarraga**

- Ekainaren 7an : "Iparraldea ezagutzeko", 35 presuna etorri dira autobusesean. Ongi etorria et gai askotako argitasunak : Daniel Landart.
- Ekainaren 30ean : Kuxkuxtu txaranga egun guzian karriz-karrika.
- Ekainaren 31an : Maialen (bere bi musikariek).
- Urriaren 25ean : Niko eta Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu.



## Andoain

- Urriaren 2an : « Bidez bide » poesia musikala – Aurelia Arkotxa eta Jesus Aured.
- Urriaren 3an : Bordagarai talde berria.
- Urriaren 6an : « Lodikroko » - Elirale konpania – 4 emanaldi.
- Urriaren 11an : Aldude haraneko bisita – 42 presuna autobusean etorriak. Ongi etorria eta argitasun desberdinak egun guzian : Mikel Erramouspé.

## Bilbo – Irale

Irale, irakasleen formazio egitura bat da dena euskaraz egiten dena. Egonaldi bakoitzak hiru hilabete irauten du eta denboraldian Euskal Herri osoko ingurumen kulturala barnatu behar dute. Bilboko zuzendaritza Euskal kultur erakunderekin harremanetan sartu da eta honek bi egun antolatu ditu 2008an. Martxoaren 10ean : Baionako bisita (Turismo Bulegoko gida batekin) eta Daniel Landart jaunaren mintzaldia. Azaroaren 13an : Baiona Ttipiaren eta Iparraldearen aurkezpena. Hizlaria : Lucien Etxezaharreta jauna.

## Lehen Antzerki azoka Azpeitian

Partaideak : Azpeitiko Udala - Eusko Jaurlaritza - Euskal Kultur Erakundea.

Azpeitiako XXVI. Euskal Antzerki Topaketen kariatara, Gipuzkoako herriak I. Azoka Eguna antolatu du azaroaren 14an.

Antzerkia jendartean zabaltzeko helburuari begira, programatzaileek eta antzerki konpainiek elkar hobeki ezagutzeko, mintzatzeko, gogoetatzeko, eta egungo antzerki eskaintzak eta aukerak zertan diren jakiteko, topagune bat sortu nahi izan dute antolatzaileek.

Egun hortan, 20 bat programatzaile, Hegoaldetik eta Iparraldetik jinak, elkar topatu dira eta ondoko emanaldietara gomiatuak izan dira :

- Elirale konpainiaren « Lodikroko »
- Théâtre du rivage konpainiaren « Zoaz hegan errari »
- Laenanaranja antzerki taldearen « Inmundo” ; hesi-puskatzailea
- Le petit théâtre de pain taldearen « Aulki hutsa »
- Kukai ttanttaka taldearen « Hnuy illa »

Ondorio baikorrak atera dira baita ere gogo ainitz, besteak beste zubi gehiago antolatzea bi aldean artean euskal antzerkiaren merkatu bat sortzeko eta garatzeko. 2009ko II. Azoka Eguna ekitaldia jadanik martxan da.

## **Durangoko Liburu eta Disko Azoka**

Partaideak : Euskal Kultur Erakundea - Gerediaga elkarteak - Plateruena Kafe Antzokia

Euskal argitalpen berriak aurkezteko xedea duen 43. Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra iragan da. Ipar Euskal Herriko ekoizpenak aurkeztuak izan dira aurten ere. Bigarren urtez, Ipar Euskal Herriko argitaletxeak eta disketxeak (Maiatz, Gatzuzain, Ikas, Euskalzaleen Biltzarra, Halsa, ZTK, Agorila, Laguna Studios) elkarrekin joan dira Durangora eta Iparraldeko gunere berezi bat osatu dute Gerediaga elkarteak eta EKE-ren arteko partaidetzari esker.

Bestalde, Iparraldeko parte-hartzaile desberdinen berritasunak Plateruena Kafe Antzokian aurkeztuak izan dira abenduaren 8an, astelehenez, irakurraldi, bideo emanaldi, kontzertu eta dantzen bidez :

### Liburu aurkezpenak

- Hatsak argitaraturik eta Auxtin Zamorak aurkezturik "Lastozko ihesguneetan" urteko olerki bilduma,
- Maiatz-ek argitaraturik, Marikita Tambourinek "Singapurreko gutunak" bere liburuaren aurkezpena eta irakurketa egin ditu,
- Ikas-ek argitaraturik, Lucien Etxezaharretak "Idazlana" (Antonio Skarmetaren La Composicion obraren euskal bertzioa) liburuaren aurkezpena eta irakurketa egin ditu,
- Elkar-ek argitaraturik, Xabier Soubelet Xubiltzek "Izotzetik izanera" bere liburuaren aurkezpena eta irakurketa egin ditu.

### Disko aurkezpenak

- "Xiberuko Dantza Jauziak" diska bikoitzaren aurkezpena, Aitzindariak taldeko musikari eta dantzarien emanaldiarekin, ZTK-ek argitaraturik
- Xabaltx-en kontzertua (MMXren ordean), Agorilak aurkezturik
- Otxalde taldearen kontzertua bere "Ameslari" diskoa aurkezteko, Agorilak argitaraturik
- Joana ETCHARREN-en kontzertua "Joana Etcharren" diskoaren aurkezteko, Laguna Studios-k argitaraturik,
- Patrice DUMORA-ren kontzertua "Watson" diskoa aurkezteko, Laguna Studios-k argitaraturik.

Egitarau hori eta parte hartzaileen aurkezpenak 6000 aleko plaketa batean bilduak izan dira. EKE-k plaketa eginarazi du eta Euskal Herrian hedatu.

Horrela elkartzuz gunere batean, Iparraldeko argitaletxeek haien lekua egina dute Azokan ikusgaiagoak agertzen baitira. Bestalde, joan den urtean ez bezala, Kafe antzokian emanak izan diren liburu eta disko aurkezpenak eta iaz baino publiko askoz zabalagoa hunkitua izan da. Heldu den azokarako, aurtengo parte hartzaile guztiak prest daude esperientzia segitzeko eta hobetzeko.

EKE-k ekintza hori bultzatu, koordinatu, antolatu eta lagundu du.

**« Regards croisés » erakusketa : Angela Mejias / Vincent Perraud**

Hondarribin - 2008ko irailean - « Victor Hugo » etxean

### **3.6/ Ikusgarrigintzaren hedapena sustatzea** **Antzerkia – dantza - musika**

#### **Musika : Euskal gualdia Molière Scène d'Aquitaine aretoan**

*Office Artistique de la Région Aquitaine*

Azaroaren 15ean, larunbatarekin, euskal kultura gozatzeko parada izan da Bordalen Mira ! festibal ospetsuaren programazioan sarturik. Bigarren aldiz, Bordaleko OARA erakundeak Euskal kultur erakundeari programazioa antolatzeko aukera eman dio. Horrela, azaroaren 15ean, Bordaleko Molière antzokian folk doinuak eta munduko musikak nagusi izan dira ELAUDI eta BIDAIA euskal taldeekin. Ondotik, Christelle Bidegainberry eta Julie Mary trikitilariak Euskal Herriko mozkinaz osatu apairua alaitu dute.

Ekitaldi horrek arrakasta handia bildu du berriro ere, Molière aretoa beteta baitzegoen....hiru aste aintzinetik ! Jende frango kanpoan egon da.

#### **Iparraldeko Konpilazioa : laugarren bilduma**

*Lanetik Egina – Les Kroniks du Rock Libre – Fondation Crédit Agricole – Atabal Scène de Musiques Actuelles – Direction Départementale de la Jeunesse et des Sports - Institut Culturel Basque.*

Iparraldeko Konpilazioa proiektuak Iparraldeko musika eszenaren ezagutaraztea eta garatzea du helburu diska baten bitartez, profesional estudio batean grabatzea taldeei aukera eskainiz,

"La Mallette" tresna (kultur munduko administrazioa hobeto ulertzeko) ukanez, "Envie d'agir" proiektuan eta Printemps de Bourges festibalean aurre aukeratuak izanik, dokumentu eta informazio batzuk errezibituz.

Taldearen promoziorako tresna bat da ere bai: internet gune bat urteroko aleak eta taldeak aurkeztuz, konpilazioak eskainiak eskualdeko programatzaileei bidaltzeko, afitxak eta flyer-ak kontzertuen aipatzeko, komunikazio plano on bat, etab.

Laugarren edizio honetako konpilazioan ondoko taldeak parte hartu dute : PIB ALL STAR, SEB & 104, SILENT OPERA, The HELL'S HENS, RONI, PLEBE, MUTA eta KALANDOS KOULOS.

Taldeak zuzenean aritu dira Biarritzeko Atabalan irailaren 26an eta 27an 300 bat pertsona aurrean. Konpilazio bat eskainia izan zaie parte-hartzaile bakoitzari.

#### **Euskal antzerkia**

*Maite dugulako*

« Satorrak » euskal antzerkiaren hedapena :

- Urtarrilaren 27an, Aiherran,
- Otsailaren 2an, Billabonan (Gipuzkoan),
- Martxoaren 29an, Gernikan,
- Apirilaren 6an, Donibane-Lohizunen,
- Ekainaren 15ean, Biarritzen.

## **Euskal artea**

### *Itzal aktiboa elkarte*

« Emazteen artea » erakusketa Donibane-Garazin, martxoaren 8tik apirilaren 5era. Hona zein izan diren artistak : Ana Izura, Anne Broitman, Béatrice. D Beatriz Churruca, Celia Eslava, Colette Dubuc, Colette Rousserie, Josette Dacosta, Odile Lascaray.

Bisita gidatuak izan dira eskolako hurrekin.

## **Bertsularitza**

### *Bertsularien Lagunak elkarte*

Bertsularitzari buruzko ekitaldien koordinaketa egiten du elkarte honek.

Transmizioa, saioen antolaketa : Bertsulari Ttiki, Gazteen txapelketa, 2008ko iparraldeko bertsulari txapelketa (sailkapen faseak : urriaren 18an Donibane-Garazin, urriaren 25ean Luhuson, Azaroaren 2an Urdiñarben. Finala : azaroaren 25ean Donibane-Lohizuneko Jai Alaiean, txapeldun : Amets Arzallus) eta ikerketa saila eramaten du.

## **Euskal zinema**

### *Uda-Leku elkarte*

Euskarazko zine hamabostaldia irakaskuntzako hiru sareetako ikasleentzat : Filmak : « Lagundu ! Arraina naiz » (4 - 6 urte) eta « Azur eta Asmar » (7 - 11 urte).

## **Euskal ohiko dantza**

### *IDB elkarte*

Euskal dantzari buruzko hedapena : Dantzari Gazte martxoaren 29an eta 30ean, Dantzari Ttiki maiatzaren 8an, Herri dantzari azaroaren 11an Senperen, Arrangoitzeko Mutxikoaren eguna urriaren 12an, Baxe-Nafarroko mutxikoaren eguna, dantza taldeen emanaldiak Luhusoko gelan...

## **« Lodikroko » dantza ikusgarriaren hedapena.**

### *Elirale elkarte*

Dantzaria : Célia Thomas – Antzerkilaria : Joxelu Berasategi – Musikaria : Jesus Aured – Koregrafia : Amaia Hennebutte-Millard eta Panxika Telleria – Ornidurak : Annie Onchalo.

Ikusgarri emanaldiak : Urtarrilaren 14etik 17ra Donibane-Garazin, otsailaren 4ean Donibane Lohizunen, otsailaren 5ean Hendaian, otsailaren 7an Maulen, martxoaren 18tik 21era Biarritzen, martxoaren 20etik 27ra Hendaian, maiatzaren 18an Heletan, ekainaren 19an Hendaian, ekainaren 24etik uztailaren 3ra Baionan.

## **Euskarazko film laburren gaualdia Atalante zinegelan**

Euskal kultur erakundearen eta Kimuak hedapen egituraren partaidetzarekin, Baionako Atalante zinegelak euskarazko film laburren gaualdia antolatu du martxoaren 28an.

Azken hamar urteetan atera 7 film labur ikusteko parada EKE-k eta Atalante zineak hautaturik.

Gaualdia, HERLAUZ' BAND txarangak alaitutako zintzur-bustitze batekin hasi da.

Geroxago, hainbat pertsona gelatik kanpo egonik lekuak eskas zirelako, euskarazko film laburren emanaldia honako pelikulen zerrendarekin izan da :

- Txotx (Asier Altuna eta Telmo Esnal - 1998 - 15')
- Hauspo Soinua (Inaz Fernandez - 2000 - 16')
- Belarra (Koldo Almandoz - 2002 - 10')
- Basurdeak (Ane Munoz - 2002 - 14')
- Amuak (Koldo Almandoz - 2004 - 9')
- Topeka (Asier Altuna - 2002 - 3')
- Sarean (Asier Altuna - 2006 - 4')

Asier ALTUNA film egileak eta Kimuak-eko ordezkaria publikoarekin aritu dira, topaketa EKE-k animaturik.

Partaideak : Cinéma l'Atalante – Kimuak – Euskal kultur erakundea

## **"Begi bi - Regards croisés" erakusketa Hendaian**

2008ko ekainaren 13tik 29ra, « Begi bi - Regards croisés » erakusketa ikusgai izan da Hendaiaiko merkatuan. Joan den neguan iragan Euskal Herriaren eta Borgoinaren arteko topaketaren ondorioa da.

Proiektua Dijoneko ACEF elkartearen eta Euskal Kultur Erakundearen arteko topaketatik sortu da. Dijonen iragan den *Baskarad* festibalaren bultzatzaileak EKEren ganat etorri ziren euskal artistak hobeki ezagutzeko asmoz. Horrela sortu zen « Begi Bi-Regards Croisés » erakusketa sortzeko ideia. Dijoneko estrenaldia martxoaren 25ean egin zen eta Hendaiaiko herriak erakusketa errezibitu du bi astez, Begiradak elkarteak lagundurik.

Euskal artista batek, hots Angela MEJIAS-ek Borgoinari buruzko hogeitabat argazki aurkeztu ditu Vincent PERRAUD borgoinarrak egin Euskal Herriari buruzko argazkien ondoan.

Gaia : ohiduraren eta modernitatearen arteko harremanak. Bi artistek bi tokitan egonaldiak egin dituzte eta problematika horri ihardestea saiatu dira.

Erakusketaren estrenaldia ekainaren 13an ostiralarekin ospatu da Herriko Merkatuan HERLAUZ' BAND Arrosako txarangak alaiturik.

Bestalde, Euskal Kultur Erakundeak erakusketaren inguruko bloga sortu du.

Partaideak : Begiradak elkarte - Hendaiaiko Herriko Etxea - Dijoneko IUP-ko Association des Etudiants en Culture, Education et Formation (ACEF) elkarte - Euskal Kultur Erakundea.

## Clément Urrutibeheity medikuari omenaldia

Ondarea alorrean egin duen lanarentzat eskertua izan da Clément Urrutibeheity jaun medikua, abenduaren 3an Isturitzen. Mitzatu direnak : Michel Amade, Clément Urrutibeheity, José Ullibarrena, Michel Duvert. Euskal kultur erakundearen izenean han ziren Daniel Landart eta Terexa Lekumberri.

Arratsaldean, « Züzülü, euskal mubleak » bideoa aurkeztu du « Tanoc production » filma ekoizleak.

### 3.7/ Festibalak lagundu

#### © « Hartzaro » festibala otsailaren 16etik 20era Uztaritzen

*Herri Soinu elkarte*

13. « **Hartzaro** » festibala urtarrilaren 25etik otsailaren 5era : urtarrilaren 25ean « Hartza iratzarri » haurrentzat, urtarrilaren 26an : dantzari, musikari eta ikertzaileekin mintzaldia ohidurazko dantza eta musikaz, otsailaren 1ean : kafeantzoki gualdia Garazi Philantropik(e) orkestrarekin, « Ana non » eta « Ufaka zanpaka » ikusgarriak Luhusoko gelan, otsailaren 5ean : ihauteriak karriketan.

#### © « Xiru 2008 » festibala martxoaren 14etik 16era Gotaiñen

*Abotia elkarte*

Xiru 19. urtea. Musika eta sorkuntza jaialdia Xiberoan.

Gaia : Zazpi ta bat, euskaldunen...eta besteen erbesteratzea.

Haurrentzat animazioa Ikas elkartearekin partaidetzan.

Bertsu emanaldia Gillen Iribaren, Patxi Iriart, eta Ameriketako beste bertsulari batekin. Ondotik, « Euskamerika artzain », Mixel Etxekopar-en pastoralara, Sohütako ikasleek emanik. Errejentsa : Nicole Lougarot.

Gotaiñeko gelan mintzaldia : Nestor Basterretxea Ondarribiko zizelkaria eta Ghitsa Iorga (musikaria).

« Zazpi'ta » ikusgarria : Etxahun Barkoxe, Attuli, Etxahun Iruri, Xalbador, Sarrionaindia eta besten obrak.

## © « Errobiko festibala » uztailaren 17tik 19era Itsasun

### *Ezkandrai elkarte*

Erakusketak : Jean-Patrick Magnoac zizelkaria Sanokin eta paisaiak Itsasun uztailaren 17tik 30ra « Haurrentzat animazioa » Atekan uztailaren 8tik 30era - « 1968eko maiatza », uztailaren 17, 18 eta 19an Atharrin.

Artistekin taillera - kantu taillera David Goldworthy et Beñat Achiary-rekin - Dantza Amsterdameko Franck van-ekin, Makean eta Kanbon taillera uztailaren 11etik 18ra - Pandero eta perkusio taillera Carlo Rizzo-rekin uztailaren 17an eta 18an - Liburutegia : Itsasun, uztailaren 16etik 19ra Uztailaren 15etik 18ra : Arte plastikoak - Multimedia - Lliteratura - dantza - perkusioa - bideoa - maskak - Tai chi taillera.

Uztailaren 18an Elizaldian : Mintzaldi-ikusgarria « Emazteak eta kantua » : Itxaro Borda-rekin besteak beste - Musika : Christian Irigoyen eta Iris Tellechea-rekin

## © « Euskal Herria zuzenean » - ekainaren 27an, 28an eta 29an Idauze Mendin

### *Euskal Herria Zuzenean elkarte*

Animazioak eta kontzertuak : Buuz bu, Xiba, Borrokan (Bera), Naizena ez naiz (Hiriburu), Garaztar'Rap (Donibane-Garazi), Latzen (Oñati), Potato (Gasteiz), Ruper Ordorika (Oñati), « Esne beltza » (Hernani)...

## © « Euskal antzerki astea » - ekainaren 9tik 13ra Urruñan

### *Euskal Haziak elkarte*

Euskal antzerki astea ekainaren 9tik 13ra Urruñan (« Itsas mendi » gelan), 28 eskola, 9 kolegio eta 2 lizeoko ikasleekin.

7 urtetatik 12 urterainoko 400 hurrek antzeztuko dituzte 25 antzerki.

## © « Mai en scène » festibala, maiatzaren 21etik 24era Maulen

### *Tokia théâtre elkarte*

Seigarren aldikotz, Tokia konpainiak Mauleko herriarekin partaidetzan, festibal hau antolatu du egitarauan % 50-a euskaraz zelarik, hala nola :

- "Aterpea" - Trapu zaharra konpania (Gipuzkoa) - Maiatzaren 21ean, asteazkenez
- "Argitxo eta dir dir" - Kukubiltxo (Bilbo) - Maiatzaren 22an, ostegunez
- "Lodikroko" - Elirale (Donibane-Lohizune) - Maiatzaren 24an, larunbatez
- "Larzabal" - Ortaizeko ikastolako aitamek emanik - Maiatzaren 24an, larunbatez
- "Flakutt" - Txalaparta-Nafarroa - Maiatzaren 23 eta 24an
- "Encantadas" - Oihulari taldea (Donostia) - Maiatzaren 24an, larunbatez

## © « Musikaren egunak », maiatzaren 15etik 18ra Urdiñarben

### *Bil xokua elkartea*

- ④ Maiatzaren 15ean eztabaida :  
« Zer lotura, zer alkartasuna zazpi probintzien artean ? »
- ④ Maiatzaren 16an, antzerkia : « Nahaspuala », « Tipul eta Putil » Ligiko antzerkilariekin,
- ④ Maiatzaren 17an, kantaldia Carment Caccuri, Barbara Luna, Ainerak, Riverboat's band taldeekin,
- ④ Maiatzaren 18an, euskal dantza Aitzindariak elkarrearekin, bertsu saioa eta kontzertua Lou Seriol, Black Water, Percubaba, MAK taldeekin.

## © Txontxongillo festibala Hendaian azaroaren 15etik 22ra

### *Akelarre elkartea*

Ikusgarriak : « Ino, ino, ino... badator bonbardino » (Ane Monna, Oskola eta Karamarroi taldea), « Zergatik bizi da basoan txanogorritxoren amona ? » (Txontxongilo taldea),

Eskolendako : « Lagunekin baratzean », « Edabe majikoa » (« Bihar » taldea), Toni La Sal « Birusak erasoan !!! » (Ginol taldea), « Ikustezinak » (Begonia baena txontxongiloa).

## © « Dilin dalan » festibala Heletan maiatzaren 17tik 18ra

### *Pestacles et compagnie elkartea*

Haur ttipien bi hizkuntzetako taillarak.

Bi egunez ikuskizunak, tailerrak, erakusketak, ipuinak, kontzertuak eta dantzak familia guziarentzat.

## © Otxote festibala, maiatzaren 9tik 10era Kanbon

### *Arraga elkartea*

« Voces Graves », « Ertizka », « Oldarra », « Gaztelupe », Ozenki » eta « Etxekoak » taldeen partehartze.



## © « Bihar Herri » festibala, azaroaren 7tik 11ra Biarritzen

### *Herri soinu elkarteak*

- Azaroaren 7an : Mintzaldia ohiko dantza eta musikari buruz (formakuntza, sorkuntza, hedapena), Daniel Landarten parte hartzea - « Ana non » eta « Pilot(h)itza » ikusgarriak.
- Azaroaren 8an: Xiberotar maskarada, Garikoitz-en txistu kontzertua, karrikako musika, Euskal herriko ohiko musika tresnen kontzertua (txistu, gaita, trikitixa, txalaparta, txanbela, alboka).
- Azaroaren 9an : perkusioak karriketan, « Bostgeio » taldearen kontzertua eta Anaigazteak konpainiaren « Bodarin » dantza sorkuntza.
- Azaroaren 10ean : « Otxalde » taldearen kontzertua « Ameslari » diskoaren aurkezpena egiteko.
- Azaroaren 11an : dantzak karriketan ; Arrola dantza taldearen « Mihimena » emanaldia.

### 3.8/ Euskal kultura herrietan sustengatu

#### ○ **Aiziritze** – Euskal kultur elkarte (Foyer rural) :

- Urriaren 5ean – kantaldia : Eneko Labéguerie, Pagolarrak, Txilika, Gaëlle Larroudé, Henri Miremont, Valérie Uhalde, Benoît Ondars, Amikuze kantuz
- Urriaren 26an – ipuinaldia : Koldo Amestoy eta Mari Bisos taldea (Kattalin Sallaberry, Janine Urruty, Menane Oxandabaratz, Maite Dunat).

#### ○ **Azkaine** – Turismo bulegoa elkarte

- « Pastore lore » ekitaldiaren antolaketa : Azkainen, urriaren 12an : animazio kulturalak, dantzak, erakusketak, Primaderan taldearekin kantaldia..
- Azaroaren 22an Azkainen Larzabal idazleari buruz mintzaldia. Hizlaria : Ixabel Etxebarria. Textu irakurleak : Maite Deliart, Graxi Solorzano, Pantxoia Etchegoin eta Daniel Landart. Kantaldia elizan. Lau xiberotar a cappella : Jean Bordaxar, Robert Larrandaburu, Jean-Pierre Luro eta Jean-Noël Pinque.

#### ○ **Bardoze** – Gaztetxea elkarte

- « Xarneguna » : Bardozeko gaztetxearen 30garren urtea. Kontzertua : « Bostgeio » eta « Oskorri » taldeekin.
- Udako arte erakusketa, ekainaren 1etik 15era Bardozen : Iñaki Olazabal (zizelkaria), Hans Jörg Dürr (margolaria).

#### ○ **Baigorri** - Basaizea elkarte

- « So'in » ikusgarriaren sorkuntza, Baigorriko kulturaldikari. Haur eta gazteen bideo, antzerki, musika emanaldi berria. Apirilaren 20an Baigorriko Bil etxea zinegelan aurkeztua.

#### ○ **Baiona** –Hiruki elkarte

- Gutun lehiaketa, Olentzerori zuzenduak. Orotara 40 bat gutun helaraziak izan zaizkio.
- Euskal erakakustokian mintzaldia Claude Labat-ekin : « Olentzero, nor haiz ? »

#### ○ **Biarritz** –Biarritz culture elkarte

- « Bi harriz lau xori » - Euskal eta kanpoko adierazpenen astea Martxoaren 21tik 24era. Euskal sorkuntza desberdinak eta munduko kulturak. Martxoaren 21ean : Ruper Ordorika eta Beverly Jo Scott-en kontzertua – Martxoaren 22an Biarritzeko mediatekan, Daniel Landart-en mintzaldia Piarres Larzabalen biziak - Le Petit Théâtre de Pain antzerki taldeak hiru ikusgarri eskaini ditu : Tartean, Aulki Hutsa eta Juglarea, Puta eta Eroa. – « K barré » antzerkia Kilikolo zirko taldeak emanik.

#### ○ **Biriatu** – Intxaurreta elkarte

- Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsulariak Biriaturko ihauterikari, otsailaren 16an.

○ **Ezpeleta** – Begi argi elkarte

Udako erakusketa Ezpeletako gazteluan, uztailaren 26etik agorrilaren 23ra.  
Gaia : « Baserri mundua ».

○ **Heleta** – Traboules elkarte

Euskal kultur ekitaldiak Heletako « Itsasoa »-n : ikusgarriak, mintzaldiak, erakusketak, sorkuntzak, artista egonaldiak (Mzetamze georgiar taldea, Itxaro Borda, Buuz bu taldea, Fabien Mongabure, Dariola konpainia, Le petit théâtre de pain taldea...).

○ **Makea** – Jostakin elkarte

« Uda leku », euskal antzerki sorkuntza, Makeako gazteek emanik uztailaren 17an.

○ **Donapaleu** –Zabalik elkarte

« Otsail ostegunak » deitu saileko mintzaldiak :

- Otsailaren 8an : "Euskara elkarte bat : zer da - Esperientzia parte-hartzailearen lekukotza", Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko bi protagonistekin.
- Otsailaren 21ean : Xipri Arbelbide-rekin mintzaldia : Lurra, bistan dena, baina gizarteak ere ez direa kondenatuak ?
- Otsailaren 28an, Paulo Agirrebaltzategi eta Agurtzan Ortiz ikerlariek Bitoriano Gandiagaz mintzo.

○ **Donibane-Garazi** – Argian elkarte

XVI. argazki erakusketa Donibane-Garazin.  
2008ko irailaren 6etik 21era.  
Erakusketa eta leihaketa (gaia : « sua »).  
Sarien emaitza irailaren 21ean Donibane-Garaziko herriko etxean.

○ **Donibane-Garazi** – Garaztarrak elkarte

« Libertimendia » deitu dantza-antzerki ikusgarri baten kanpoan emaitza, Donibane Garazin, 2008ko otsailaren 3an.

○ **Donibane-Garazi** – Garazikus elkarte

Nafarroako arte garaikideen biurterokoa. 35 artista Donibane-Garaziko herrian.  
Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra (kontzertuak, zine-mintzaldiak, erakusketak, bisita gidatuak). Abo artistaren zuzendaritzapean.

○ **Donamartiri** – Isturitz et Oxocelhaya elkarte

- Prehistoriari buruzko erakusketen apailatzea Baionako euskal museoan eta Irisarriko ondarearen etxean,
- « Artea eta ondarea » saileko proiektuen bultzatzea,
- Sorkuntza – hedapena :
  - ▶ "Xan naiz ni", Patrice de Villemenandy, Marc Large eta Peio Serbielle-en filmaren aurkezpena uztailaren 26an,
  - ▶ « Manantial » musika errezitala, Pierre Le Garreres eta Eñaut Leroux-rekin agorrilaren 9an.

○ **Sara** – Turismo bulegoa elkarte (Biltzar saila)

XXV. Euskal Herriko Idazleen Biltzarra Saran apirilaren 24ean. Idazleen ekoizpenen saltzeak eta izenpetzeak. Txomin Peillen eta Xipri Arbelbide euskal idazleeri omenaldia.

○ **Senpere** – Oxtikenea elkarte

- Bi diskoen plazaratzea, 2007ko kantu zaharren egunean grabatuak. 46 kantu orotara. Jean-Mixel Bedaxagar-en parte hartzearekin. Jakes Larre-ren laguntza bi diskoen azalaren egiteko.
- « Kantu zaharren eguna » antolatua izan da 2008ko irailaren 21ean Senpere Larraldean.

○ **Uztaritze** – Ur begi elkarte

« Oihana lau lorietan » - Uztaritzen – Uztailaren 26 eta 27an  
Oihana ilunpeko ixtorio mixterioak : « Amis de la forêt » taldea, Argazki erakusketa eta olerkiak Jean-Claude Broca eta Fred Fort-ekin, xorien artatze lanak Hegalaldia elkartearekin, egurra lantzea Etienne Bortayrou, Claude Lalanne, Jean-Yves Behoteguy-rekin, musika Jean-Christian, Ringo Irigoyen, Myuki Katsuno Brickle, Paxkal Indo, Matthieu Prual, Raoul Garcia, Uztaritzeko trikitilariak taldeekin, dantza Marie Tellechea eta Izartxo taldea (Maien dantza).

### **3.9/ Zubiak eraiki euskal kulturaren eta ekonomia munduaren artean**

#### **Bidelagunak programa**

Kultura meszenasa garatzeko, Euskal kultur erakundeak abian ezarri du programa berri hau. Ondorioz, proposatzen du lantegiak laguntza bat (zerga gutiago pagatuz) ekar diezaien EKE-ri, eta horren truke, eskainiko dizkio euskal kulturari lotuak diren euskarriak : liburuak, diskak, erakusketak, ... halaber animazioak. Aurkezpen katalogo bat egina izan da, Mikael Alcibar, Bidarteko ESTIA eskolako Master 2 Pro « Management de projets » diplomaren barnean.

### **3.10/ Euskal Herria Munduan, Mundua Euskal Herrian**

Euskal kultura ez da bizitzen ahal esperientzien eta jakitateen trukaketarik gabe. Euskal kultur erakundearen asmoa esperientziazko berri batzuek abiatzea da Europa Ekialdeko herri berriekin, bai eta ondotik munduko bertze herri batzuekin, bertzeak bertze diasporako euskal etxeen bitartez.

#### **Beila ontzien festibala Douarneney herrian**

Euskal Herria ohoretan zen Douarneney herrian, 2008ko uztailaren 17tik 20ra. Euskal kultur erakundeak Itsas Begia elkartearekin lagundu du sardina eta atun arrantzari buruzko erakusketa elebidun baten egiten. Erakusketa hori Douarneney-n aurkeztua izan da. EKE-ren izenean Terexa Lekumberri han egon da lau egunez, euskal itsas ondare elkarteekin batera. Bere erakusmahaiak jendea Euskal Herria ezagutzera gomitatzen zuen EKEk ekoiztu « Instants en Pays Basque » filmarekin eta bi ukipen pantaila interaktiborekin : bata Euskal Herriaren aurkezpen orokorraz, bestea euskal kantagintzaz.

#### **Québec hiriko 400. urtemuga eta kultura-arteko harremanak**

Québec-eko Laval Unibertsitatearen eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko hitzarmenaren kariatara, kolokio bat egin da Québec-en 2008ko ekainaren 3 eta 4an « minoritateen egokitzea eta sozializazioa eskualdeetan » gaiaren inguruan. Kultura minoritateen egokitze prozesuei buruzko ikerketak egin dituzten ikerlariak bildu dira bertan. Euskal kultur erakundeak ere gomitatua zen. 2005ean Euskal Herrian egin kultura praktikei eta nortasun kolektiboari buruzko mugaz gaineko ikerketa aurkeztu die Terexa Lekumberri.

#### **Kantua : kontzertu birak Kalifornian eta Euskal Herrian**

##### *Kantiruki elkarteak*

Diasporarekilako kultura trukaketaren kariatara, Kantiruki taldea (Sylvie Cherbero, Sylvie Brust, Maitena eta Terexa Goicoechea, Mikel Erramouspé) Kalifornian izan da kontzertu sail baten emateko.

Bestalde, Kaliforniako Noka hirukotea Euskal Herrira etorri da uztailan eta kantu animazioetan parte hartu du Alduden eta Kanbon (Euskal Munduak erakusketaren inguruan)

## **Euskal musika**

### *Iparkor elkartea*

« MAK » taldearen bidaiaren prestakuntza. Talde honek 4 kontzertu emanen ditu Suizian.

Helburua : euskal sorkuntzan euskararen presentzia Euskal Herritik kanpo erakustea.

## **Georgiako polifoniak Euskal Herrian**

*Partaideak : Donibane Lohitzuneko herriko etxea – Traboules konpainia – Hondarribiko udala – Baionako C.R.R.*

Euskal kultur erakundearen ekimenez, duela zombait urte Georgiarekin abiatu trukaketa artistikoak kari, emazte kantariz osatu MZETAMZE talde polifonikoa Euskal Herrian egon da urriaren 31tik azaroaren 5a arte. Kontzertu eta animazio desberdinetaz gain, euskal kantariekin bildu dira ere egonaldi batean.

Horra izan diren ekitaldi aberatsak :

- kontzertua Beñat ACHIARY eta Jesus AURED-ekin lehen partean Azkaineko elizan urriaren 31an Donibane Lohitzuneko Koru Kantuaren festibalaren kari,
- kantu tailerra Baionako C.R.R.-an ohiko eta garaikideko kantu klaseko ikasleekin urriaren 31an.

- kontzertua Hondarribiko elizan azaroaren 1ean,

- kontzertua IRUSKA taldearekin (Maddi OIHENART, Céline MOUNOLE et Kattalin INDABURU) Heletako Itsasoa Kafe kulturalean azaroaren 4ean,

- mintzaldia « Georgiako polifoniak » Donibaneko Lohitzuneko herriko etxean Koru Kantuaren festibalaren kari,

- egonaldia Heletako Itsaso Kafe kulturalean azaroaren 2, 3 eta 4ean. Hor, Iruska taldeko hiru kantariak berenganatu dute Georgiako polifonien berezitasuna; halaber, Mzetamze taldeak euskal errepertorioa landu du karia hortarat.

## **EKE - Madrileko Alliance Française**

Euskal kultur erakundeak parte hartu du Gabrielle Duplantier argazkilariaren obretarik egin erakusketa eta liburuan. Bernardo Atxagaren olerkiak gehituak izan dira.

Madrileko Alliance Française egituraren partaidetzarekin.

## **« Occitania » festibala – Tolosa – 2008ko urria**

Okzitandar eta kanpoko kulturei zuzendu festibal honetan, Euskal kultur erakundeak partaidetza bat egin du Tolosako Institut des Etudes Occitanes (IEO) egiturarekin.

Ondorioz, « kantuketan » euskarria ezarri du hiru astez.

Halaber, Pantxoa etchegoin-ek mintzaldi bat eman du urriaren 14ean, euskal kulturaren inguruan.

## **Itxaro Borda - Lettres du Monde**

2008ko urrian iragan den festibalakari, Itxaro Bordak bere olerki irakurketak egin ditu, Kepa Junkera eat Bernardo Atxagarekin batera.

Bordeleko Euskal Etxearen partaidetzarekin.

## **Euskal kultur erakundea Hungariara gomit**

Budapesteko Millenáris Kultura Zentroak, Pantxo Etchegoin Euskal kultur erakundeko zuzendaria lau egunez gomitatu du (irailaren 3tik 6a arte), Hungariako hiriburuko kultura arduradun desberdinekin biltzeko, ikusgarri gelak ikus ditzan eta euskal kulturaren eta artisten aurkezpen bat egin dezan.



### **4.1/ Euskal kultur erakundearen bitartekaritza lana azkartu**

Elkarteen eta erakunde publikoen partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak bere bitartekaritza lana azkartu nahi luke, ahozkotasanari buruzko funtsezko lan baten abiatzeko, sormenaren sustatzeko, euskal kultura ondarea haurrei ezagutarazteko eta ondare hori ahalik eta jende gehienekin banatzeko.

Kultura bitartekaritzak euskal kultura betiko tokietatik atearazi behar du, ekonomia eta kultura munduen bai eta erakaskuntza, sozial, aisialdi edo kirol sail desberdinen arteko hurbilketei buruz lan eginez.

### **4.2/ « Batekmila – Euskal munduak » erakusketaren inguruko bitartekaritza gauzatu eta animazioak antolatu**

2008an, « Batekmila-Euskal Munduak » erakusketa Euskal Herrian zehar ibili da eta Bordelen izan da udazkenean.

- Otsailaren 1etik martxoaren 23ra : Bilboko Euskal Museoa ;
- Apirilaren 3tik maiatzaren 31ra : Gasteizko Amerika zentroan (Arabako Foru Aldundiaren partaidetzarekin ;
- Uztailaren 11tik agorrilaren 14a arte : Kanbon ;
- Agorrilaren 22tik irailaren 21era : Hendaia ;)
- Irailaren 29tik urriaren 15era : Bordelen (Halle des Chartrons) ;
- Urriaren 24tik azaroaren 9ra : Getxon ;
- Azaroaren 17tik 2009ko urtarrilaren 31ra : Iruñean (Planetarium).

Erakusketa ezarria izan den aldiro, animazio andana bat antolatua izan da :

#### **Bilbo :**

- ▶ « Oteiza, itzala eta argia » dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Evelyne Cazemajor egilearekin
- ▶ Bidaia (Caroline Philipps eta Mixel Ducau) taldearen kontzertua
- ▶ « Argentinako Euskaldunak » mintzaldia Noël Elorga-rekin
- ▶ « Apaizac Obeto » diaporama-mintzaldia Kanadako bidaiari buruz (Jon Maia)

#### **Gasteiz :**

- ▶ Maialen Errotabehere kantariaren kontzertua eta animazioa Bordatxo taldearekin.



### **Kanbo :**

- ▶ Euskal kantuak eta euskal diasporari buruzko solasaldia, Noka euskal-amerikar taldearekin
- ▶ Mintzaldia Erramun Bachoc-ekin : euskararen iragana, oraina, geroa
- ▶ Euskal kantuak kantari gazte batzuekin, horien artean Amaia Riouspeyrous eta Bostgeio taldea

### **Hendaia :**

- ▶ Kontzertua Maialen Errotabehere kantariarekin / Lehen partean : Xabaltx
- ▶ « Naizena ez naiz » dantza ikusgarria Leinua konpainiarekin

### **Bordele :**

- ▶ Mikel Duvert-en mintzaldia « Vous avez dit Basque ? » gaiaren inguruan
- ▶ Karrika animazioa Zpeiz Mukaki taldearekin
- ▶ Kontzertua Bestalariak koru mistoarekin (Bordeleko Euskal Etxea) eta Amikuzeko Kantuka koru mistoarekin
- ▶ Zine-kontzertu gaualdia Nomadak TX filmaren emanaldiarekin, Igor Otxoa eta Harkaitz Martinez protagonisten presentzian

### **Getxo :**

- ▶ Euskal kantu eta dantza ikastaldia (kantuak Mikel Markez-ekin)
- ▶ « Iparraldeko mendiak » diaporama-mintzaldia Panpi Olaizola-rekin
- ▶ Erromeria Bordatxo taldearekin,
- ▶ Elaudi eta Ken Zazpi taldeen kontzertuak
- ▶ Burp underground report : bigarren filmaren aurkezpena, My Jok kolektiboarekin
- ▶ Ipuin-gaualdia Koldo Amestoy-rekin
- ▶ Ibilaldia azalpenekin (Altxangako itzulua, Saratik abiatuz). Panpi Olaizola eta Xarlo Iralour-ekin.

### **Iruñea :**

- ▶ Bideo sorkuntzak erakusketaren estreinaldiarentzat
- ▶ Zura taldearen kontzertua
- ▶ Olerki errezitala Xabier Lete olerki-kantariarekin

### **4.3/ Interfaze eta animatzaile lana azkartu**

#### **Ondare sailan**

- Ondarearen Egunen kariatara, Euskal kultur erakundeak animazio berezia egin du Euskal Museoan, memoria kolektiboaren baloratzeko egiten ari den lanaren aurkezteko.

- Pirinio Atlantikoetako CDDP-ek eta Ikuskaritza Akademikoak « Le patrimoine dans tous ses états » gaiaren inguruan erakasleentzat antolatu bi formakuntza egunen kariatara (2008ko apirilaren 2 eta 16an), EKEk mahai-inguru batean parte hartu du 2008ko apirilaren 16an Biarritzeko ostalari lizeoan « l'élève acteur du patrimoine » gaiaz.

- Herriko Etxe edo elkarte batzuk geldeginik, EKEk proiektu batzu gauzatzen lagundu du : Uztaritzeko eta Ahetzeko (2009an eginen dena) latsagien zahar-berritzeak, Getariako Museoko Adixkideek sortu Hypollite Lesca-ri buruzko erakusketa, Larzabaleko harri borobilen interpretazio zentroaren animazioen inguruko gogoeta.

- Euskal kultur erakundeak Akitaniako edo Departamenduko batzorde desberdinetan parte hartu du : Ondarearen eta Ederguneen eskualdeko Batzordea, CAUE-ko administrazio kontseilua. Bestalde, 2009an, objektu higigarrien departamenduko Batzordean parte hartuko du ere.

- Bestalde, 2008an, EKEk euskal ondarearen Batzorde iraunkorraren bilkurak eta lanak animatzen jarraitu du.

### **4.4/ Kultura eragileak lagundu Informazio eta Komunikazio Teknologiek in zerikusia duten egitasmoetan**

#### **Eduki programa**

Euskal kultur erakundeak Eduki izeneko formakuntza saila antolatu du 2007ko urritik 2008ko maiatzera, kultura eta ondare alorretan internet egitasmo bat alhan ezarri nahi zuten Euskal Herri barnekaldeko kultur elkarteekin.

2005 eta 2006an Ipar Euskal Herriko barnekaldeko zibergune zombaitzuetan (Hazparnen, Garazin, Izuran, Maulen) egin izan ziren formakuntzen ildotik dator ekimen hori.

www.eke.org euskal kulturaren web atariko baliabide teknologietan oinarritzen den dispositiboari esker, kultura eragileek beren web orrialdeak sortu ahal izan dituzte, hasieratik bukaeraraino lagunduak izan direlarik. Egitasmoak anitzak izan dira: web orrialde tematikoen sortzea (sorkuntza baten sustapena, elkarte baten aurkezpena...), edo blogak, irudi galeriak, edo bideoak sareratzea adibidez.

Eduki programaren helburua bikoitza zen:

- Alde batetik barnekaldeko kultur elkarteak laguntzea interneten komunikatzen, lehen web argitarapen egitasmo xume batetik abiatuz
- Bestaldetik, euskal kulturari eta ondareari buruzko eduki numerikoen hedapena bultzatzea.

### **Parte-hartzaileak**

- Ikerzaleak elkarte  
(Ondarea)  
<http://ikerzaleak.eke.org>
- Dariola elkarte - Koldo Amestoy  
(Ipuina)  
<http://www.koldo-amestoy.com>
- Tokia Théâtre  
(Antzerkia)  
<http://www.tokia-theatre.org>
- Le Petit Théâtre de Pain  
(Antzerkia)  
<http://ptdtp.eke.org>
- Itzal aktiboa elkarte  
(Arte plastikoak)  
<http://emazteen.artea.eke.org>
- Euskal Herria Zuzenean elkarte  
(Kultura hedapena)  
<http://www.ehz-festibala.com>
- Bardozoko Gaztetxea  
(Kultura hedapena)  
<http://foyer.bardos.eke.org>
- Itoiz kantatuz – Musiques en milieu scolaire elkarte  
(Kantu eta musika)  
<http://itoiz.eke.org>
- Aitzindariak elkarte  
(Euskal dantza)  
<http://www.aitzindariak.com>
- Arrola dantza taldea  
(Euskal dantza)  
<http://mihimena.eke.org>
- Jean Bordaxar laukotea  
(Kantu eta musika)  
<http://www.jean-bordaxar.com>
- Zirrimarra elkarte  
(Arte plastikoak)  
<http://www.zirrimarra.com>
- Arraga abesbatza  
(Kantu eta musika)  
<http://www.otxote.com>
- Elaudi  
(Kantu eta musika)  
<http://elaudi.eke.org>
- Haize Berri kultura zentroa  
(Kultura hedapena)  
<http://www.haizeberri.com>

Tailerrak 2007ko urritik 2008ko maiatzera iragan dira.

CD-ROM elkarregile batek eginak izan diren webgune guziak aurkezten ditu fitxa labur batzuen bitartez. Fitxa horiek blog bati lotuak dira eta bertan zure oharrak egin ditzakezu. Euskarri horiei esker esperientzia gehiago eramaten ahalko dira. Alabaina, hortik atera erakaspenak Euskal Herri barnekaldeko bertze kultura elkarte batzuek gara ditzaketen antzeko bertze web komunikazio egitasmoetan baliatzen ahalko dira. CD-ROMa dohain banatzen da.

Eduki, Europako Erkidegoak lagundu egitasmoa da, Leader + programaren barnean  
Xehetasunak: <http://eduki.eke.org>

#### **4.5/ Second Life unibertso euskal kulturagunea**

Euskal kultur erakundeak interneteko hiru dimentsiotako unibertso birtualetan murgiltzeko esperimentuak daramatza euskal kulturagune bat sortuz Second Life munduko "Pays Basque" izeneko uhartean.

Euskal Herri digitala programa kari, Ipar Euskal Herriko teknologia berrien agentziari esker (ANTIC), "Artean" izeneko euskal kulturagune bat eraiki du EKE-k. Bertan ibiliko diren bisitariak euskal kulturaren inguruko argibide orokorrak atxematen ahalko dituzte.

"Batekmila - Euskal munduak" erakusketaren testu, bideo eta soinu batzuk kontsultagarri daude ere memento honetan baita argazki erakusketa bat.

Kulturagune hori ANTIC agentziak Second Lifen sortu duen "Pays Basque" uhartean kokatua dago. Euskal kultur erakundea ez da esperimentu horretan saiakerak egiten dituen erakunde bakarra. "Artean" kulturagunearen saihetsean Bidarteko ESTIA ingeneritza eskolaren eraikina dago adibidez.

Second Life baino haratago, distantzien oztopoak gaindituz, publiko berezi batzuegana heltzeko moldeak lantzen ditu Euskal kultur erakundeak. Geroan, adibidez, Batekmila erakusketaren bisita birtuala antolatu izan dadin Uztaritzetik, San Franciscon edo Parisen konektatuak diren ikasle batzuekin.

Euskal kultur erakundeak 2008ko urriaren 1ean Second Lifen antolatu ekitaldiak arrakasta polita bildu. 30 pertsona inguru hurbildu dira "Artean" kulturagune birtualera, 17:00ak eta 21:00ak artean. Hor zirenak toki ezberdinetatik konektatuak ziren (Bilbo, Baiona, Iruñea, Arbizu, Hernani, Hazparne, Angelu, Kanbo, Baigorri, Uztaritze, Nantes, Donostia, Olorue, Urdiñarbe, Paris...). Harremanak sortu ahal izan dira zuzenean kulturaguneko erakusgeletan.

## 4.6/ Publiko berriak euskal kulturari sentsibilisatu

**Kultura animazioak kostaldeko ospitalean** (2004ko urtarrilan izenpetu hitzarmenaren arabera)

Kostaldeko ospitaleko obrek beranta hartu dute. Ondorioz, harrera toki berriaren estreinatzea gibelatua izan da. Beraz, EKEk egin proposamen guziak ez dira gauzatuak oraingoz.

Hala ere, Olentzeroren inguruko animazio bat eginga izan da Trikaldi zentroan, arratsalde bateko ipuinaldi batekin (kondalaria : Xan Errotabehere), euskal kantu tailer bat 7 astez Jokin Irungaray-rekin, eguberriko besta abendu erditsutan Donibane-Lohizuneko Sagardian aisialdi zentroko hurren parte hartzearekin.

### « Olentzero »

Olentzero erakusketaren lau aleak baliatuak izan dira urte bukaeran eta animazio andana bat ahalbideratu dituzte :

- Hiruki elkartearen, Baionako Turismo Bulegoaren eta Hiriaren partaidetzarekin, erakusketa aurkeztua izan da Baionako Poterne aldean egin ikaztegiaren kariatara ;
- Itsasuko Gau-Eskolaren partaidetzarekin ;
- Donibane-Lohizuneko herri liburutegiarekin ;
- Trikaldi zentroan (kostaldeko ospitalearekilako hitzarmenaren kariatara).

### Hizkuntza eta kultura topaketak Kanbon

2007an Euskal Herrian gertatu ondoan, Hizkuntza eta kultura topaketak Guianan iragan dira. Gaia : idatziaren garrantzia.

## **Euskal kultur erakundearen geroari buruzko gogoetak**

*Euskal Herria 2020* deitu egitasmoaren babesean eta A. Ladousse Jaunak eraman ebaluaketa lanen ondorioz, erakunde ezberdinetako arduradunak adostu dira Euskal Kultur Erakundearen laguntzeko garapen berri bati buruz joan dadin, besteak beste partaidetza gehiago eginez beste kultura egitura batzuekin.

Hori dela eta, Administrazio Kontseiluko kide batzu bildu dira lau aldiz, bai lan taldearekin, bai partaideekin, azterketa zehatz baten eramaiteko geroari begira, oroz gainetik eginbeharrak ongi finkatzeko.

Gogoeta horien lehen aurkezpen bat egina izan da elkarte kideei.

## Euskal kultur erakundeko partaideak

Abbadiako adixkideak	Herri soinu
Abotia	Herria
Accords	Hiruki
Aek Baiona	Ibaialde
Aidez Aide	Ikas
Akelarre	Ikas bi
Aldudarrak bideo	Ikasleak
Anaigazteak	Ikherzaleak
Argian	Intxaurreta
Arraga abesbatza	Iparralai
Arrola	Iparraldeko dantzarien biltzarra
Association culturelle hendayaise	Isturitz et Oxocelhaya
Au fil du théâtre	Itsas begia
Azika	Itsas kirolak
Ballet biarritz	Itzal aktiboa
Basaizea	Jostakin
Begi argi	Kantiruki
Bertsularien lagunak	Khanta Xiberua
Biarritz culture	Kimua
Bil xokua	Kitzikazan/k
Centres musicaux ruraux	Lagunt eta maita
Compagnie Théâtre du rivage	Lauburu
Dantza hirian	Le petit théâtre de pain
Dariola	Maite dugulako
Distira	Maritzuli
Eihartzea	Or konpon
Elgar oinka	Oreka
Elirale	Orgue en Baigorri
Erdi Hetsi - Isturitze	Oxtikenekoak
Errobi promotion	Pariseko euskal etxea
Euskal argentina	Pestacles et compagnies
Euskal Haziak	Pottoka dantzan
Euskal Herria zuzenean	Seaska
Euskal idazleen elkarte	Société des amis du Musée basque
Euskal irriatiak	Soinubila
Euskal konfederazioa	Théâtre des chimères
Euskaltzaindia	Théâtre du rivage
Eusko Ikaskuntza	Théâtre du versant
Euskoarkeologia	Tokia
Foyer des jeunes de Bardos	Traboules
Foyer rural d'Aicirits	Uda Leku
Garapen kontseilua	Ur begi
Garazikus	Ur taldea - Baiona
Gatuzaina	Xiberuko jauna pasterala
Haize Berri	Zarena zarelako
Hatsa	ZTK
Hebentik	